



*Izardi*

Paulin Solozabal Solozabal



Juan Pablo bigarren  
Aita Santu agurgarria  
Zarratar Telmo jatorragaz  
onginaiez agurtzen,

EGILEA: Paulin Solozabal Solozabal

URTEA: Bilbao, 2007

IRARKOLA: Flash Composition, S.L.

LEGE GORDAILLUA: BI-418-07

## AURKIBIDEA

Aguirre / Arenaza .....	7
Egurrola .....	8
Arizmendiarieta'tar Jose Maria .....	10
Ibaia .....	11
Larrondo .....	12
Eguzkiza .....	13
Basabe .....	14
Udabarria .....	15
Tximistondo .....	17
Adiskide .....	18
Bidean gora .....	19
Ederra .....	20
Zerua .....	22
Bizitz emoillea .....	23
Gora adi .....	24
Egarri naz .....	25
Bizia agurtu .....	27
Gizonaren gogoia .....	28
Erri eder bat .....	29
Burua .....	31
Itza .....	32
Biotza .....	33
Gudari bikaiña .....	34
Ikasi .....	36
Egarri naz .....	37
Betirako .....	38
Lur .....	39
Argia .....	41
Sinismena .....	42
Izkuntza .....	43
Erria .....	44
Mundu zear .....	46
Eliza .....	47
Gure bizitza .....	48
Jakituria .....	49
Kristaua .....	50
Euzko .....	51
Bidea .....	52
Egizale .....	54
Euskalerrria .....	55
Otoia .....	56
Bertsolaria .....	57

Zentzuna . . . . .	59
Euskalduna mundu zear . . . . .	60
Euskalduna misiolari . . . . .	61
Bake zale . . . . .	62
Euzkotar anaia . . . . .	64
Atsedena . . . . .	65
Zartzaroa . . . . .	66
Goizian . . . . .	67
Zintzoa . . . . .	69
Alkartasuna . . . . .	70
Elburua . . . . .	71
Errien gidaria . . . . .	72
Euzko maxa . . . . .	74
Laukariz . . . . .	75
Seme agurgarriak . . . . .	76
Larrabe . . . . .	77
Loradi . . . . .	79
Lan toki . . . . .	80
Mendiguren . . . . .	81
Zelaia . . . . .	82
Euzko baratza . . . . .	84
Sorlea . . . . .	85
Lur apainduria . . . . .	86
Mendiko iturria . . . . .	87
Euskaldun sinisdun . . . . .	89
Jakiturizko ederra . . . . .	90
Alkar begira . . . . .	91
Oiarzabal . . . . .	92
Solozabal . . . . .	94
Abesti jatorrak . . . . .	95
Gizontasuna . . . . .	96
Euskera . . . . .	97
Euzkotar jatorra . . . . .	99
Lenen maite egik beti . . . . .	100
Zuriz jantzirik dago . . . . .	101
Urrea itzean . . . . .	102
Euzko seme alabak . . . . .	103
Maitasuna . . . . .	105
Otseintza . . . . .	106
Egunsenti ederra . . . . .	107
Edurra . . . . .	108
Arrats-bera . . . . .	109
Gau urdin . . . . .	111
Izadi . . . . .	112

Langillea . . . . .	113
Argia . . . . .	114
Loradi . . . . .	116
Jakituria. . . . .	117
Almena . . . . .	118
Ikusmena . . . . .	119
Argi eta garbi . . . . .	121
Errukia . . . . .	122
Zubia . . . . .	123
Eriotza . . . . .	124
Zabaldua . . . . .	126
Bakea . . . . .	127
Oben . . . . .	128
Barri ona . . . . .	129
Jesus otzan eta apal . . . . .	131
Lagun urkoa . . . . .	132
Jesusen maitasuna . . . . .	133
Jaunaren serbitzari . . . . .	134
Erruki zakizkigu . . . . .	135
Jauna adi dago . . . . .	137
Zuzentasun zaleak . . . . .	138
Ontasuna . . . . .	140
Odolez erosi gaituzu . . . . .	141
Euskalduna . . . . .	142
Lantzar bedeinkatua . . . . .	144
Lapur damutuari parkatu . . . . .	145
Barkamena . . . . .	146
Txikiak aukeratu ditu . . . . .	147
Gurutzaz salbatu dozu mundua . . . . .	148
Kristo guretzat jakinduria, zuzenbide ta santutze egin da . . . . .	149
Jauna laguntzaille . . . . .	150
Aintza jaunari . . . . .	151
Askatuko nau . . . . .	153
Esku zabal . . . . .	154
Biotz barraia . . . . .	155
Zatoze niregana ta ni joango naiz zuzengana . . . . .	156
Anaitasuna . . . . .	157
Aintza eta ospe Jaungoikoari . . . . .	158
Itzul zaitzte ez dot nai pekatu rik . . . . .	159
Zuzendu erri ta agintariak . . . . .	161
Zuzentasuna . . . . .	162
Onerako jaiok gara . . . . .	163
Gorrota txarkeria . . . . .	164
Zure bizi gara . . . . .	165
Jauna billatu . . . . .	166

Eresi jainkoari . . . . .	168
Arizti . . . . .	169
Jauna entzun gagizuz . . . . .	170
Doatsu jaunaren beldur dana . . . . .	171
Biotzona . . . . .	172
Adimen argia . . . . .	173
Jesus erosle . . . . .	174
Zoriontasunak . . . . .	175
Gatz eta argi . . . . .	176
Odol-jarioduna osatu . . . . .	177
Aurrean erabiliko ditue . . . . .	178
Jesus eta Beeltzebul . . . . .	179
Jesus ur gainean . . . . .	180
Saltzailleak . . . . .	181
Ildakoen biztuera . . . . .	182
Jesusen eriotza . . . . .	183
Jesus pilatoren aurrean . . . . .	184
Jesusen eriotza . . . . .	185
Jesus Kafarnaunen . . . . .	186
Elbarriduna . . . . .	187
Urdin urdin . . . . .	188
Ezku igarra . . . . .	189
Arerioak maitatu . . . . .	190
Jesusen larrialdia . . . . .	191
Mirariak . . . . .	192
Jesusen jarraileak . . . . .	193
Azken auzia . . . . .	194
Gauz arrigarriak . . . . .	195
Otoitza . . . . .	197
Bizia . . . . .	198
Sinisteduna . . . . .	199
Otoia . . . . .	200
Jainkoaren itza . . . . .	201
Aintza kristori . . . . .	202
Kutxatilla . . . . .	203
Tentaldiak . . . . .	205
Zoriontasunak . . . . .	206
Egizko otoitza . . . . .	207
Jaunaren ardurapean . . . . .	208
Eskatu . . . . .	209
Edermin . . . . .	211
Izkuntza ederra . . . . .	212
Semea bialdu . . . . .	213
Euntariaren morroia . . . . .	214
Elbarriduna . . . . .	215

## AGIRRE

Zabaldi nausia  
ederretan eder da  
lilluraz jantsia,  
zeru goitik begira  
paradizu irudi  
bitxiz apaindurik.

Luzeraz ta zabalez  
egokituta zagoz  
sorrera ederrez,  
jakituriz daukazu  
bizitz irudi oro  
goitar zoramenez

Euskal aritz bikaiñak  
duinduten zaitue  
ederrez jantzirik,  
ta baratz orlegiak  
babesean daukazuz  
lurra orniturik

## ARENAZA

Euzko izen jatorrak  
zelai barnean datza  
argiz alaiturik,  
zabal ta eder dagoz  
bizitz oro opaka  
biotz barrenetik.

Maitasuna dario  
inguru zabaldiak  
edertasun bidez,  
aritz zoragarriak  
gora-goraka dagoz  
dizdira ederrez.

Areatz mamintsua  
gozaro dago goizez  
eguzki sorreran,  
area betik gora  
autsa goitik bera  
alkarren susmoan.



## EGURROLA

Mendia eder dago  
zerutik eguzkiak  
bikain lagundurik,  
urra dator goitik  
biotz zabalenagaz  
lurra omendurik.

Lurra eskerka dago  
gozotasun onenaz  
zorion bizian,  
aritz zoragarriak  
dizdizera ederrez  
eguzki aurrian.

Zu, lur bedeinkatua,  
gogo onenaz zagoz  
bizia eskeintzen,  
ta aritzak maite zaitu  
esker-min gozoetan  
orriak edertzen.

Euskal aritz orleiak  
edertuten doazi  
urre-printzapean,  
gero ta sendoago  
ol zuri ta zabalak  
opalduz lurrean.

Egurrola lantegi  
egurrezko izenez  
zabiltzaz lanean,  
bizi ona eskeinka  
giza-seme jatorrei  
lurraren gainean.

Eskerrak damotzuez  
giza seme leialak  
biziaren aurrez,  
euskaldun egurrola,  
euzko bizia zaindu  
sendien omenez.



JOSE MARÍA  
ARIZMENDI-ARRIETA

Barinagatar semea  
Andragoitar ein zara  
erri ederrean,  
egiz gozagarria da  
Andragoi euskalduna  
euzkoen artean.

## ARIZMENDIARRIETA TAR JOSE MARIA

Barinagatar seme  
Iturbeko lorea  
indarrez beterik,  
Maxaren magalpean  
artu zendun bizia  
argiak ondurik.

Aurrez aur zendukan  
Euskalerra guztia  
bizitza lanetan,  
gizonaren biziak  
gogoz deituten eutzun  
biotz barrenetan.

Mondragoi izango zan  
zure bizitz arloa  
gogorik onenaz,  
Euskalerra guztia  
Mondragoira adi dago  
lan eder orregaz.

Gizonaren biotzak  
urre gorri dario  
indarrak poztuta,  
buru argitasuna  
jakituririk ba doa  
itzak indartuta.

Mendi ta lanteietan  
lora barriak datoz  
jakituri bidez,  
gora goraka dator  
Iturbeko lorea  
gizonei on eiñez.

Lantegi miragarri,  
zureak dira goiak  
indarrez ondurik,  
gora gaurkoz Mondragon  
ta erriaren poza  
bizitz barriturik.

## IBAIA

Zelai alde ederrak  
zerura adi dagoz  
euzko lurraldetan,  
dizdizera ederrez  
lurra zoratzen dabe  
eguzki indarretan.

Izarrak, goitik, adi  
urrebitxitan dabiltz  
ibaira begira,  
ura eta zerua  
soiñeko urdiñagaz  
lagun egin dira.

Biak dira ederrak  
giza bizia ontzen  
alkartasunian,  
gaba eta eguna  
ibaira adi dagoz  
zurtasun garbian.

Ibaialde bizia  
pozez beterik dago  
ederrez goiturik,  
goitik bera begira  
orleia kutun dago  
maitez indarturik.

Gaba eta eguna  
maitegarriak dira  
irudi biziak,  
goia eder dalarik,  
ibaia, dizdiz, dago  
ur urdin garbiaz.

Txori abeslariak  
ederrez zoraturik  
dabiltzaz goizian,  
txiriliruli kantak  
eralkiz ibaiari  
edertasunian.

## LARRONDO

Larrondoko lorea  
ezbearrez jausi zan  
tximisten artean,  
etsaiak eldu ziran  
gorroto baltzenekaz  
txarkeri bidean.

Errekalde guztia  
negar-miñetan egon  
sasiak josita,  
ekaitza agertu zan  
larrondo saminduten  
gorrotoz biztuta.

Zelai alde orleia  
miñez dozu biotza  
arantzak aulduta,  
lurren duintasuna  
mindu erasi dabe  
sasiak sortuta.

Lora zuri zuriak,  
egiz, ederrak dira  
zelai orlegian,  
erria duintzen dabe  
askatasun argiaz  
bizien aurrian.

Biotzeko larrondo,  
zure duintasuna,  
bizi bizi, dago,  
argiak maite zaitu  
egun-senti ederrez  
gero ta geiago.

Antxiñako larrondo  
lora zuri zuriaz  
apainduta zagoz,  
eder dozu bizia  
itxaropen onenaz  
bizitzeko asmoz.

## EGUZKIZA

Eguzki eder dago  
goiz zoragarri ontan  
udalen goizian,  
goia aratz ta urdin  
maitegarrizko dago  
beren ongi naian.

Urrea ta urdiña  
biak bat egin dira  
gozotasunagaz,  
itz ezitia dario  
zeru bardingabeak  
urrezko doiagaz.

Ederra ta itza darioz  
bilin bolo dantzari,  
goiko zabaldiak,  
ederrik bear ba-da  
goi urdiñean dagoz  
urrezko argiak.

Amets egin dot amets  
goizalde bikaiñean  
ederrak ondurik,  
zoramen egizkoa  
urre bitzetan dabil,  
dizdiz, arriturik.

Lur orlegi maitea  
zorabiotan dago  
zerura begira,  
mendi eta zelaiak  
dizdizera ederrez  
adi zeru goira.

Itxaz zabal zabalak  
urdiñeraz ta dizdiz  
jantzi dira goizez,  
besarkada ezitia  
zeruetara doa  
biotz maitasunez.

## BASABE

*Izen aukeratua  
ederrik bear ba-da  
mendi barrenean,  
aldapa bikain batek  
edertzen dau erria  
izkuntz ederrean.*

*Etxe zuri bikaiñak  
ongi garretan dagoz  
edertasunian,  
bake ta maitasuna  
bizi bizirik dagoz  
alkartasunian.*

*Iturri biziduna  
danen erdian dago  
ur garbi garbiaz,  
itxaropen ederrez  
erria poztuten dau  
uraren biziaz.*

*Mendiaren ederra  
zoramenetan dago  
argiz orbizturik,  
bora-bera ederrak  
alaitzen dau guztia  
erria ondurik.*

*Zugadi aintzatsuak  
edermiñetan dagoz  
eguzkira adi,  
urdiña eder dala  
Basabeko mendiak  
urreea dirudi.*

*Aintza eta gorasun  
bikaintasun onenaz  
goitik bera datoz,  
eguzki ta erria  
biak bat egin dira  
edertasun oroz.*

## UDABARRIA

Udabarri liraiña  
amets gozoaz dator  
izadi maitera,  
lurra, zain zain egoan  
maitasun-urtiari  
gabetik goizera.

Argia ta ederra  
biak bat egin dira  
ortzi urdiñean,  
lurrera begira dagoz  
gizona ondu nairik  
bizitz ederrean.

Itxas urdin aratza  
amets girotan dago  
dirdira ederrez,  
arraiñak, gora gora,  
saltari bizkor dabiltz  
berezko ametsez.

Eguzkia ta ura  
alkar begira dagoz  
ederren ederrez,  
goitik dator agurra  
urrezko bola baten  
uren zoramenez.

Lurra pozez bete da  
erraiak sendaturik  
almen ederrean,  
mendi bizkar bikaiñak  
gora goraka datoz  
orlegi duiñean.

Udabarri argia  
kantari dator goizez  
pozagaz ondurik,  
ta izadi guztia  
gogo onenaz dago  
eskarrez beterik.





## GURE GAZTE TREBEAK

Soiñuz dabilta kantari  
euskaldun errian,  
emon da zabal zazu  
egiaren argia  
euzkoen aurrian.

## TXIMISTONDO

*Tximistondo maiteak  
aldapa barnean dau  
bizitza kutuna,  
orlegi ta ederra  
bere oinpean daukaz...  
bizitz poztasuna.*

*Mendi bizkar sendoa  
baratza biurtu da  
atxurren indarrez,  
zugatza ta lorea  
bere bereak ditu  
lanaren ederrez.*

*Prisku, sagar, madari  
bizi opaka dagoz  
ondo egiñari,  
arnari eder danak  
esker-miñetan dagoz  
gizonen lanari.*

*Bizitz gozoa dago  
Tximistondo aldean  
arnariz ondurik,  
lur biotz aberatsak  
ateak zabalduz  
lana bedeinkaturik.*

*Lora zuri zuriak  
milletan eder datoz  
zelai orlegian,  
alerik gozoenak  
zugatz orleian dagoz  
bizitzasunian.*

*Eguzki ta euria  
biak tarteka dabiltz  
lurra ondu nairik,  
janari ta edari  
biak zerutik datoz  
Aitak bialdurik.*

## ADISKIDE

Egitan amultsua  
izen zoragarri au  
bizien artean,  
maitasuna dario  
lagunak alkartzeko  
gizonen bidean.

Lagun bi alkaturik  
zoragarriak dira  
itzez ta egitez,  
arazo sendoenak,  
errez, onduten dira  
biotz maitasunez.

Alkartasn bearrez  
aurkitzen da gizona  
bizitz ondukeran,  
bizia, egiz, latz da  
beren arazoekaz  
doi doi agerkeran.

Gizon bat lagun gabe  
erdi-illik aurkitzen da  
samiñez galdurik,  
gizon bi alkartuta  
indartsuenak dira  
alkar lagundurik.

Gizon adiskideak  
urregorri dirudi  
laguntzaz ondurik,  
arazo gorrietan  
laguntasuna dakar  
biotzak pozturik.

Adiskide jatorra  
itz danen goitik dago  
bizitza aurrian,  
emon da zabal zazu  
biotzaren urrea  
anaien onian.

## BIDEAN GORA

*Bidean gora doa  
eskelari zintzoa  
sakoaz lepoan,  
ezak eta goseak  
ogi billa daroe  
arribil ondoan.*

*Aldatza gogor dago  
gosea gogorrago  
bizia minduta,  
mendiko artezkurra  
errukitu zakidaz  
or goitik jatxita.*

*Txoria egaz doa  
goitik bera adi  
gizon gaisoari,  
ua ua dirautso  
soiñu saminenetan  
bidelariari.*

*Gizon eresgillea  
mendiaren ederrak  
indartu dau gogoz,  
abesti bikaiñena  
jalki dautso lurrari  
eder-miñen giroz.*

*Bidean gora doa  
irudimen argiaz  
aiskide nausia,  
jakituri ederrez,  
bikainki, ikusten dau  
zelai orlegia.*

*Bidean gora doa  
gizonaren biotza  
bide liraiñian,  
aldatza eder dala  
gogoa bikaiñago  
mendi magalian.*

## EDERRA

Euzko gizon jatorra,  
berez, eder zalea da  
lur bikain onetan,  
egia ta ederra  
biak bat egin dira  
euzko jatorretan

Zelaiko orlegia  
dizdizera ederrez  
maitegarria da,  
ederzalea dana  
loratxo billa doa  
zela orlegira.

Mendi puntaren puntuak  
zorabiatuten dauz  
adimen guztiak,  
ederra dago goian  
argiaz bikaindurik  
gorako bidiak.

Zugadi aintzatsuak  
bizitzaz indartuta  
gora gora doaz,  
gerria sendo sendo  
ta adarrak bikainki,  
bizi, agertuaz.

Izadi almentsua  
udabarriren adi  
zuriz apaindu da,  
mendi magal gailenak  
argiaren laguntzaz  
lozez jantzi dira.

Ederraren ederra  
egunsenti goizian  
erne da lurrian,  
zuri eta gorria,  
bizi bizi, dabiltzaz  
orlegi artian.



## LEKEITIO

Boga boga  
euskalduna doa  
biziaren billa

## ZERUA

*Zerua urdin urdin  
lora bikaiñena da  
izadi aurrian,  
ez dauka itz bardiñik  
edertasun argia  
goraltzeko ortzian.*

*Urdin garbi garbia  
deika dago liraiñez  
giz adimenera,  
bake ta maitasuna  
opaka gizonari  
ederren erara.*

*Zerua zer daukazu  
jakintzaz edertuta  
goialde orretan,  
ederra, berez, zara  
jakituriz goiturik  
urdin aratzetan.*

*Egunsentia dator  
berezko doi guztiaz  
maitasun artian,  
lurra gora goraka  
zerura adi dago  
poztasun garbian.*

*Lurra eta zerua  
biak alkartu dira  
maitasun poz giroz,  
lurra eder dalarik  
zerua ederrago  
millatan geiagoz.*

*Izadi argitsua  
zerura adi dago  
maitasun garretan,  
buru eta biotza  
biak alkartu dira  
goi arrimenetan.*

## BIZITZ EMOILLEA

Biziaren ederra  
zuri begira dago  
euskaldun jendia,  
ederra ederragaz  
gogoz, bat egin da  
zerura begira.

Argiz ta maitasunez  
zure antzeko gara  
erri maite ontan,  
gogoz maite zaitugu  
gureganako dozun  
ongi-nai orretan.

Zure eskutik sortu da  
erri maitegarria  
goitar maitasunez,  
zerua eta lurra  
gogoz alkartu dira  
euzkotar naimenez.

Euzko edertasunak  
zure ederra dagersku  
begiak zabalik,  
zeru, lur ta ixaso  
bitxirik ederrenak  
guretzat emonik.

Zure antzeko da  
euskaldunen biotza  
maitasun bidean,  
esker-miñetan dago  
euzko seme jatorra  
bizitz ederrean.

Zeru bizitz ederra  
zoriontasunagaz  
daukagu begira,  
gora gure Jainkoa  
maitasun guztiagaz  
adituz argira.



## GORA ADI

Jainko guztiz altsuak,  
egitan, maitatzen dau  
gizadi kutuna,  
argiz ta maitasunez  
ondu euskun bizia  
beren irudira.

Ederretan ederra  
izadia sorturik  
almenen aurrian,  
ibai ta itxasoak  
gizadi bizirako  
jarririk aurrian.

Ta lur zoragarria  
oinpean jarri euskun  
bizitz onerako,  
mendiak ta zelaiak  
ondasunez beterik  
bizi bizirako.

Lur lan-toki onetan  
bizitza jarri euskun  
eguzki ederrez,  
euriaz goraturik  
lurraren mamin dana  
maitasun indarrez.

Argiz ta maitasunez  
sortu eban gizona  
lurreko lorea,  
lan-toki sakonenak  
bere bereak ditu  
bizitza erara.

Baiña giza bizia  
zerurako egin zan  
Aitagaz batian,  
seme zintzo leialak  
beragaz gura ditu  
betiraun guztian.

## EGARRI NAZ

Gorputza egarri da,  
arima egarri da  
bizitza larrian,  
gorputz eta arima  
biak antzizka dagoz  
euren izatian.

Mendi gaiñera noa  
Maxa zoragarrira  
eguzki argiaz,  
iturri ur gardena  
deika dauka gogoak  
amorru biziak.

Bakea eta poza  
aurkitzen dau gorputzak  
iturri ondoan,  
au uraren ederra  
gorputz dana ondurik  
bizitza osoan.

Arima egarri da  
zerutar ura nai dau  
gogo biziagaz,  
ez dago arkaitzetara  
ur astunaren billa  
larritasunagaz.

Bakea ta grazia  
nai ditu gogo biziz  
biotz barrenian,  
zerutar egarria  
asetu gura leuke  
ontasun bidian.

Ona ta maitasuna,  
egiz, billatzen ditu  
arima garbiak,  
egite zuzen bidez  
asetzen da gogoak  
goituz egarriak.



## KRISTO KURUTZEAN

Gora gora  
Jesusen Biotza  
gora gora  
kristiñauen poza.

## BIZIA AGURTU

Agurgarria zara  
bizitz zoragarria  
ontasun guztiaz,  
gogoz sortu zinduzan  
Jaungoiko Egilleak  
maitasun onenaz.

Mendi gain orlegia  
nora nai begiratzuz  
eder bera zara,  
aundi-bikain luzeraz  
zeruetara adi  
urrezko gizara.

Biozkor agur duiña  
bijoia zuregana  
abots on artean,  
gora mendi argia  
ederraren ederrez  
izarren aurrean.

Itxas urdin zabala  
arrigarria zara  
begien aurrian,  
biotzez aberatsa  
lurtarren alderako  
giro onenian.

On guztien buru lez  
gizona agertzen da  
lurraren gaiñean,  
agurgarria zara  
adimen argiagaz  
izadi aurrean.

Gora gizon zuzena  
zure almen ederrez  
bizitz egokian,  
emon da zabal zazu  
munduan frutu ona  
Jaunaren aurrian.

## GIZONAREN GOGOA

Gizon zuzen gogoa  
bitxi bikaiñena da  
gizadi baratzen  
eder ta zuzenak  
zuzendu bear ditu  
lorratzak bidetan.

Egi ta maitasuna  
dira giza loreak  
gizonen bidean,  
zuzenezko laguntzak  
argitu bear ditu  
giz-oiñak lurrean.

Lur bikain ontan dago  
gizonaren bizia  
anaien artean,  
adimen ta biotzak  
jokatu bear dabe  
bide zuzenean.

Gizon zuzen zaleak  
gidatu bear ditu  
egunen orduak,  
bide zuzenetatik  
argituz egi bidez  
bizitza orduak.

Gizon bat egi barik  
txarto doatzu lurrez  
gaiztakerietan,  
alkartasun giroa  
guzurrak apurtzen dau  
giz arazoetan.

Gogo zuzen zalea  
izan bedi gidari  
lur biribillean,  
eguzkiaz batera  
zuzentzeko bizia  
alkarren artean.

## ERRI EDER BAT

Erri eder bat nai dot  
bakez ta maitasunez  
ondurik gogo,  
bakerik gabe lurra  
zoritxarrez beterik  
odoletan doa.

Arima euskalduna,  
berezki, artu dozuz  
onaren doaiak,  
egiz maitatzen zaitu  
gogorik onenagaz  
bizitza Jaubiak.

Egi zaletasuna  
on bidez daroazu  
euskaldun erria,  
Jaungoikoaren seme  
gogoz, autortzen dozu  
zeu zaran guztia.

Euskal mendi ta baso  
zoragarriak dira  
eguzki aurrian,  
iturriz ta bizitzaz  
bedeinkatuak dira  
gogo onenian.

Giza lege jatorrak  
nai ditu euskaldunak  
bizitza gidari,  
Euskaldun Batzarrean  
laguntza zuzena da  
egi zuzendari.

Egiaren sorbidez  
erri eder bat dator  
euskaldun artean,  
ogia ta bakea  
gogo onez zabalduz  
alkartasunean.



## URA ETA EURIA

Itxàsotik zerura  
zerutik lurrera  
datorkigu gizonen bizia.

## BURUA

*Adiskide bikaiña,  
gogoz, goratzen zaitut  
gizonen bizian,  
almena ta argia  
zuregan daroazuz  
edertasunian.*

*Eguzkia eder da  
izarrak bikain dira  
sorterri maitian,  
irudi bizi orrek  
indartzen dabe lurra  
osasun onian.*

*Buru doi maitalea  
zu zara bizitzaren  
gidari argia,  
zure laguntzaz dabiltz  
zeru ta lur guztiak  
ondurik bizia.*

*Buru zur egizkoak  
goratzen dau gizona  
jatortasunian,  
buru zurren argiak  
zainduten dau bizia  
alkartasunian.*

*Buru zuzendaria  
egiz ibili zaite  
lanaren bidean,  
errien batzarrean  
zeu zara gidaria  
zuzentasunean.*

*Gizonaren buruak  
egiz zaindu bear dau  
bizia munduan,  
bene-benetan zara  
izar zoragarria  
gizadi santuan.*



## ITZA

*Izkuntza zoragarria  
zuri adi naukazu  
egiz arriturik,  
zure ederra zer dan  
aditzen emoidazu  
biotza pozturik.*

*Aldatzak gora noa,  
guztia eder dakust  
eguzki argitan,  
euzko aritz sendoak  
izketan diardue  
arbaso itzetan.*

*Goiko mendian nago.  
Tontor zoragarria  
urrezko jantzi da,  
euzko lur maite-miñak  
euskeraz mintzatzen dau  
itzak lagunduta.*

*Gain gaiñetik begira  
zoramenetan nago  
ederrez beterik,  
euzko edertasuna  
bizi bizirik dabil  
itzak lagungurik.*

*Ur eta lur bikaiña  
biak dabiltz izketan  
dabiltz euzkotar erara,  
euzko gizon jatorrak  
maite dau zorionez  
izate jatorra.*

*Jakiturizko itza  
buruz eta biotzez  
dauka euskaldunak,  
eder artean eder  
izkuntza ederra  
buru argidunak.*

## BIOTZA

Gizon bat biotz barik  
ezin sortu leiteke  
gizadi maitian,  
argia ta biotza  
bizitza sustrai dira  
alkartasunian.

Erri amultsu batek  
urre biotzak daukaz  
zoramen gozotan,  
maitasunez sortzen dauz  
egite bikaiñenak  
gizonen bidetan.

Zugatzeko lorea  
maite miñetik dator  
aritz adar puntan,  
aritza eder dala  
lorea kutunago  
usain gozoetan.

Urrezko biotz onak  
maitasuna dario  
itz ta egitetan,  
ekintza maitetsuak  
bizi bizirik doaz  
aurrerapidetan.

Zu, euskaldun biotza  
euzkoetatik zatoz  
bitxiz ederturik,  
erri maitegarria  
biotz urreak dakar  
egitez ondurik.

Euzkoa biotz barik  
ezin izan leiteke  
erri eder ontan,  
biotzak goratu dau  
euzkotar arnasea  
argi ta baketan.

## GUDARI BIKAIÑA

Gauz eder asko dagoz  
lur zoragarri ontan  
gizonen bizian,  
mendi arrigarriak  
deike dagoz ederrez  
itxaso aurrian.

Ta zu, Tximistondoa  
ederretan ederra  
aurkituten zaza,  
zelai eta baratzak  
gogo onez daukazuz  
eguzki argira.

Zelai lirain orleiak  
bikaiñez jantzi dira  
zerura begira,  
izarrak ta zelaiak  
amets dagie gabaz  
edertasunera.

Maitasuna jatortzu  
zeru goitik zugana  
urrezko argitan,  
ta zu, seme leiala,  
gora begira zagoz  
eskar bizietan.

Gaba ta izardia  
maite-miñetan dagoz  
itxasora adi,  
ederra egaz doa  
zerutik itxasora  
ametsen irudi.

Lurra ta itxasoa  
biak alkartu dira  
euskaldun bizian,  
zerura begira dagoz  
lagunekin batera  
gogo onenian.



## ETXEBARRIA

Txikia da zure irudia  
baiña egitan maitegarria  
euskaldunen erria

## IKASI

*Gizonaren bizia  
lora ederrena da  
mundu zabalian,  
izarrak izar dira  
ta gizona jakintsu  
zeru goi aurrian.*

*Ikasi ta ikasi  
beti, jardun bear dau  
gizonak argitzen  
lorarik ederrena  
sortu eban Jainkoak  
bizia onduten.*

*Buru argitasuna  
lora ederrena da  
bizitz jatorrean,  
zerurako bidea  
damotso gizonari  
egizko bidean.*

*Lurrezko trokatzetan  
arrizkuetan dago  
gizonen bizia,  
ta gidari bat dauka  
argiaz ondurik  
ederrez betia.*

*Argia bikain zara  
onena irakasten  
bizitza bidean,  
ikasi ta ikasi  
jardungo dau gizonak  
argitasunean.*

*Ikaste argitsuak  
jasoko dau bizia  
lurretik zerura,  
egite nausienak  
maitasunez ondurik  
Jaunagaz batera.*

## EGARRI NAIZ

Alderdi danetatik  
egarri biziz nago  
izate guztian,  
mendira joan nai dau  
euzko eder zaleak  
goiz zoragarrian.

Gaillurrak maite ditu  
egazlari bipilak  
egarri bitzetan,  
zeruaren ederra  
izatez deika dauka  
bizitz erraietan.

Izarrak maite ditu  
olerki egilleak  
eguzki sorreran  
lurra eder dalarik,  
zerua ederrago  
izarraren sorkeran.

Uraren egarria  
asmetan dau gorputzak  
eguzki aurrian,  
ura ta eguzkia  
amesgarriak dira  
gizonen bizian.

Gizon bat urik bage  
ezin bizi lurrian  
arantza artean,  
laguntzak bear ditu  
lanaren orduetan  
illuntze aldean.

Egiaren argiak  
maite ditu gizonak  
egarri bizi-az,  
zuzentasuna bear  
euzko erri maiteak  
ongi-nai bizi-az.

## BETIRAKO

Gizon bardin bagea  
izaki bikaiña da  
lur zoragarrian,  
lurra ta biotza  
bere-berak ditu  
bizitz onenian.

Argia, berez, bear  
buruaren almenak  
zuzentasunean,  
argi barik ezin dau  
buru adimenak bizi  
beren izatean.

Gizonaren burua  
larri, aurkitzen da  
illunak goiturik,  
argia berezko dau  
bideak jorratzeko  
zuzentza bidetik.

Biotz zoragarriak  
zeregin onak daukaz  
bere sormenean,  
lanerako jaio zan  
buruari lagunduz  
egizko bidean.

Egi ta maitasuna  
lore bikaiñak dira  
gizonen baratzen,  
lurretik ta zerura  
daroe bizi ona  
egizko garaitzan.

Gizonaren bizia  
zeruak osotzen dau  
bizitz ederrian,  
Jaungoiko maitasunak  
beretzat sortu eban  
gizona lurrian.

## LUR

Jaungoiko guztiz Altsuak  
eratu eban lurra  
maitasun guztiaz,  
gizonaren bizia  
poztu nai izan eban  
lurren janariaz.

Lurra, egiz, da eder  
azalez ta barruaz  
mamiñez ondurik,  
Euzkotarren indarra  
bikainki dago lurrez  
biziz indarturik.

Zugatzik ederrenak  
damozkuz lur maiteak  
gure bizigarri,  
ertilari dirudi  
lur biribil orleiak  
gure sendagarri.

Lora zuri bikaiñak  
goiz, agertzen dira  
zugatz adarretan,  
bizitz ona dakarre  
lurra edertuteko  
zorion bidetan.

Eta zu, Tximistondo  
lora zuriz ondurik,  
bikain bikain, zagoz  
eguzki liraiñetan  
zerua dirudizu  
ederraren gogoz.

Ederrik bear ba da  
ba-da Bizkai aldean  
lur zoragarria,  
Maxa aintzagarriak  
goratzen dau munduan  
eder irudia.





Mungiaz ertilariak  
goratu euskaldun erria  
soiñua ta jakituria

## ARGIA

Argia ta ederra  
biak bat egin dira  
baserri maitian,  
ametsezko dirudi  
itz zoragarriak  
argitasunian...

Goizian goiztik dator  
laiñoak atziturik,  
eguzki argiaz,  
izadia adi dago  
urre printzeei begira  
ametsez betia.

Ibillaldia dauka,  
gaurkoz, izendatuta  
eskola mutillak,  
mutl zurren ametsa  
ta eguzki sorrera,  
onartuz egunak.

Pozik doa belbilla  
soiñuaz agurturik  
erriko urtera,  
kantu kantari doaz  
euzko seme jatorrak  
gaurkoz urrutira.

Itxas urdin zabala  
eder girotan dago  
beren izatian,  
eguzkia ta ura  
maite-miñetan dagoz  
alkartasunian.

Aurrez aur agertzen da  
mendirik bikaiñena  
izadi aurrian,  
euskaldun ariztiak  
bikain agertzen dira  
izadi maitian.

## SINISMENA

Goitar argi jatorra  
Jainkoak bialtzen dau  
gizadi ontara,  
bizitz ederragoa  
dauka gizonarentzat  
maitasun erara.

Aitak bialdu eban  
bere Seme maitea  
gizonez jantzirik,  
Semeak maite eban  
Aitaren guraria  
esanak eginik.

Onen aurrean dago  
gizadi gizajoa  
tristuraz beterik,  
ta Aitak gogo onez  
Semea bialtzen dau  
errukiz ondurik.

Gizonen goitik dago  
jakituri aundia  
zerutar bizitzan,  
jakintza gailenena  
datorkigu zerutik  
illezkor itzetan.

Sinismena bear dau  
lurtar giza semeak  
Aitaren aurrean,  
zerutar argi bidez  
gizonak onartzen dau  
zerua lurrean.

Egiz lora ederra  
sinismen argitsua  
egitez ondurik,  
sinismenak garoaz  
Jainko Aitarengana  
itzez argiturik.

## IZKUNTZA

Itzez alkar aitzeko  
sortua da gizona  
mundu zabalean,  
adimen ta argia  
artu ditu bizian  
eskar onenean.

Almen zoragarriak,  
egiz, daukaz gizonak  
lurreko baratzen,  
oldozkun ederrenak  
itzez agertzen ditu  
beraren bizitzan.

Bizitza ezbaridiñak  
oitura egokiak  
dakarz gizonetan,  
izkuntz zoragarriak  
jakituriz onduak  
bizitz arloetan.

Erria zelakoa  
izkuntza alakoa  
dabil gizonetan,  
erri buru argiak  
izkuntza be argia  
daroa miñetan.

Euskal erri jatorrak  
ixkuntz bikain bat dauka  
bere izatian,  
zentzuna ta argia  
biziagaz daroaz  
alkartasunian.

Izkuntza jakintsua  
darabil euskaldunak  
alkar ulertzean,  
jakiturik dator  
elearen ederra  
ezukoen artean.

## ERRIA

Mendi ta zelai orleiz  
inguraturik dago  
euskaldun erria,  
ederraren babesa  
nunnaitik agiri da  
ongi-naiz beita.

Lurra ta gizadia  
biak bat egin dira  
edertasunean,  
usain gozozko lorez  
bete da izadia  
bikaintasunian.

Gizadi aintzatsua  
eder-miñetan dago  
bizia ondurik,  
deduz ta maitasunez  
dauka bizi guztia,  
ongi, apaindurik...

Mundu zabalez zear  
itzi dau Euskaldunak  
bere irudia,  
gizontasuna, doi doi,  
zabaldu dau lurrean  
egizko argia.

Zuzentasun doaia  
eroan nai eban beti  
beren izatian,  
egi ta maitasuna  
opalduz errieri  
bizien aurrian,

Gure Euskalerria  
egiaz bat egin zan  
munduaren aurrez,  
zerutik artu eban  
maitasun ederrena  
errieci emonez.



Euskaldunaren illobiratzea  
Bogota'ko urian  
biotzeko Sabino nire anaia

## MUNDU ZEAR

Mundu zear doazi  
euzko seme jatorrak  
bizitzaren billa,  
Amerika maiteak  
besoak zabaldurik  
aizkide erara.

Mendian gora doaz  
anaien biotz ona  
agurtuz poz pozik,  
zatoz aizkide kutun  
diño Amerikarrak  
biotz biotzetik.

Gora begiraturik  
mendiak eder dira  
Amerika aldian,  
lurra oparo dago  
bizia emon nairik  
gogo onenian.

Esker nai eskumara  
aukeratu egizu  
zure lan tokia,  
ardi zuri zuriak  
adi adi daukazuz  
opaka bizia.

Zeruak urdin urdin  
bakea eta poza  
darioz aidean,  
usain gozozko lorez  
beterik dago lurra  
mendi zabalean.

Amerika goialde  
ederra zara mendiz  
aberastasunez,  
gogoz artu dituzu  
euskaldunen semeak  
biotz on zabalez.

## ELIZA

Eliza zerutarra  
bikain bikaiña zara  
zeru ta lurrean,  
alkarte zoramena  
zure bizitzea da  
eguzki menpean.

Gizon jakituria  
bizi bizirik doa  
zure egoetan,  
egirik ederrenak  
izatez daroazuz  
zure arauetan.

Eliza argitsua  
egiz bizirik zagoz  
izate osoan,  
gizonaren bizia  
zoriondu nai dozu  
bizitz oparoan.

Mundu guztian zear  
dardar bikaiñez doa  
zerutar egia,  
Eliz argia dator  
zeru goitik lurrera  
eskarrez betia.

Lur zabaltasunian  
sustraiak jarri ditu  
bizitz onerako,  
egi ta maitasuna  
zabaldu gura ditu  
gizonarentzako.

Bakea eta poza  
artu ditu zerutik  
Jaunaren eskutik,  
Jauna dauka zaindari  
maitasun onenagaz  
Eliza pozturik.



## GURE BIZITZA

Lurtar gure bizitza  
Jaungoikoak sorturik  
bitxi eder bat da,  
zerutar antzekoa  
gogoz izan bear dau  
onak eraginda.

Bizitza aundirako  
sortu ginduzan Jaunak  
maitasun onenaz,  
lenengo lur onetan  
ezagutuz otseindu  
egite zuzenaz.

Bizitzea eder da  
lanez eta laguntzaz  
alkarren artean.  
Lurtar seme-alabak  
bizia ontzen dabiltz  
mundu zabalean.

Gerorako bidea  
emon euskun Jinkoak  
alkartasunean,  
Aita baten semeak  
anaikiro biziaz  
itxaropenean.

Zeru eder bat dauka  
Jainkoak semientzat  
betiraun guztian,  
lurra maitegarri da  
beren izateagaz  
zorion bidian.

Emengo jarduerak  
zeruan lora dira  
betiraun guztian,  
lurra zeru goiagaz  
on-bidez alkartzen da  
betiko zorian.

## JAKITURIA

Almen arrigarriaz  
sortu da gizona  
lur jakiturizkoan,  
mendi eta zelaiak  
dizdizera ederrez  
on dagoz osoan.

Lurra erne-miñetan  
jakituriz onduta  
dago bere-baitan,  
indarra ta bizia  
ixil ixil daroaz  
beren erraietan.

Jakitori bikaiña  
dizdiz, dator zerutik  
urre izpian,  
eguzki biribilla  
goitar dabil argitsu  
urrezko boletan.

Egiz indartsu zara  
zugatz jakituria  
zelai orleietan,  
sagar eta madari  
gozo gozoak dozuz  
adarren gaiñetan.

Guztietan ederren  
oroz goitik dagona  
egiz da gizona,  
lurra arakatu dau  
jana emon eraziz  
bizitz-gai on ona.

Oroz goitik diardu  
zeru bizia lantzen  
jakitori zurrez,  
aldi au amaikeran  
gero-ederragoa  
gozartzeko pozez.

## KRISTAUA

Izen eder bat ba da  
lur biribil gainean  
egiz indarturik,  
jakituri berbera  
etorri zan zerutik  
errukiz beterik.

Kristotarrak gara gu  
euskal erri maitian  
zerutar argiaz,  
jakituri nausia  
Kristok ekarri eban  
zerutar biziaz.

Euzko seme jatorra  
abegi onenagaz  
arturik argia,  
zorion ederrera  
begira dago lurrez  
maitatuz egia,

Kristogandik dator  
izen zoragarri au  
argiaz ondurik,  
egi ta maitasuna  
bere-bereak ditu  
eskarrez urturik.

Izen almentsu onek  
zeru goira daroa  
sinisdun gizona,  
lurra eder dalarik  
millatan ederrago  
zeru zoriona.

Biziaren Sorlea  
maitasun berbera da  
zeru ta lurrean,  
gogorik onenegaz  
artu nai dauz kristauak  
zeru ederrean.

## EUZKO

Euskaldun gizarteak  
euzko izen ederra  
daroa beregan,  
jakituriz onduta  
ederrago dalarik  
beren itxuragan.

Zelairik zelai doa  
euzko seme jatorra  
astelen goizian,  
eguna argitsua  
burua argiago  
gizonen artian.

Egunsenti ederrak  
goizez dei egin dautso  
baserri maitian,  
argia ta bizia  
biak alkartu jakoz  
biotz barrenian.

Itxasaldera adi  
zoramenetan dago  
izate guztian,  
urdiña ta zabal  
biak, dizdiz, dabiltzaz  
on-giroz betian.

Euzko seme argia  
arrimen itzeletan  
aurkitzen da lurrez,  
euskaldun izadia  
ain eder dalarik  
beraren izatez.

Mendi artean dagoz  
euzko erri jatorrak  
izkuntz bikaiñenaz,  
gizona eta itza  
biak bat egin dira  
izkuntz ederrenaz.

## BIDEA

Egiaren bidea  
danetan ederren da  
jakintza saillean  
zuzentasunak nai dau  
bizia ondutea  
bizien artean.

Biderik bide doaz  
euzkoak eleizara  
gogo onenian,  
arago ta ederrago  
zapalduz bide dana  
sinismen garbian.

Bide aundiak dagoz  
euzko lur onetan  
egiz apaindurik,  
mendian gora doaz  
bide arrigarriak  
egitez ondurik...

Bidearen goi puntan  
Eleiza aurkitzen da  
maitasun garretan,  
Jainkoa deika dago  
bizia opaldurik  
semiei benetan.

Bide xarmangarriak  
inguratuten dabe  
euzkoen erria,  
kale-baserri arte  
loraz onduren dabe  
euzkoen bidia.

Jauna opaka dago  
zerurako bidea  
berak lagundurik,  
argirik ederrena  
aurrez aur, opaldurik  
bideak zaindurik.



Etxebarritar anaiak  
agur eder bat guztiei  
gogorik onenagaz.

## EGIZALE

Egizaletan eder  
gizon bikaintasuna  
arrigarria da,  
egia da gidari  
giza bizitz onean  
itzak eraginda.

Euskalergi maitea  
egizale izan da  
beren izakeraz,  
argi eta zuzena  
maite ditu euzkoak  
gogorik onenaz.

Egiak zuzendu dau  
euzko seme jatorra  
erritar bidean,  
egitik dator ona  
euzkoen bizitzara  
zuzentasunean.

Egia da gidari  
zuzentasun bizitzan  
euzkoen artean,  
egiaz ondu nai dau  
lur ontako bizia  
edertasunean.

Zuzentasuna nai dau  
bizitza egokiaz  
lurraren gaiñian,  
Euskalergi eder bat  
egitik sortuko da  
gizonen artian.

Bizitza ezilkorra  
maite dau euskaldunak  
egiaz ondurik,  
lur onetan argiaz  
zoriona lortzeko  
eskarrez beterik.

## EUSKALERRIA

Gauza ederrak daukaz  
erri zentzudun onek  
bere erraietan,  
onerako sortu zan  
erri eder jatorra  
zelai orleietan.

Izkuntzaz bikain zara  
itzlaur ta olerkiz  
gizarte onian,  
buru eta biotza  
biak dabiltz batera  
edertasunian.

Mendiz bikaiña da  
gora gora begira  
alkarren artean,  
izarretara adi  
gau guztian poz pozik  
urrezko bitzetan.

Jakituri bikaiñez  
gora goraka dago  
itzaren zoria,  
euskaldunen euskera  
mundu zear dabil  
onginaiz betia.

Eguna zoriontsu  
agertuten da goizez  
argiz urreturik,  
ederretan ederrak  
egiz dira mendiak  
eskarrez beterik.

Ta loretan lorea  
sinismen argia da  
euzkoen bizitzan,  
lurretik zerura adi  
Jaungoikoa maite dau  
euskaldun baratzan.



## OTOIA

Jesus Jaun maitaleak  
gugaz errukiturik  
otoi egin eban,  
betirako zoria  
gogorik onenagaz  
eskatuz lurrean.

Otoirik bikaiñena  
giza guztien aldez  
sortu eban lurrez,  
Aita ta gizadia  
alkartu nai zituan  
izkera ederrez.

Gure Aita dirautso  
Jaungoiko berberari  
itz ederrenean,  
zeru goietan zagoz,  
goratua izan zaitez  
zeru ederrean.

Erreiñu dirdaitsua  
etor bedi lurrera  
gizonen artera,  
ta zure Gogo Deuna  
goraldu dagiela  
zeure esanera.

Emoiguzu Jaun Ona  
eguneroko ogia  
lur bikain onetan,  
gure gaiztakeriak  
parkatu Jaun Altsua  
gizonen bidetan.

Ta ez eiguzu itzi  
ziltzaldietan jausten  
gure ergalkeriz,  
zaindu gagizuz Jauna  
gure estura aldietan  
zeru goitar argiz.

## BERTSOLARIA

Gure izkuntz jatorra  
egiz, zoragarri da  
bizitz eder ontan,  
itzlau guztiz bikaiña  
argiz beterik dago  
gizonen miñetan.

Jakituria dauka  
bere sorkunde danak  
joskera bikaiñez,  
buru eta biotza  
biak batera doaz  
joskera ederrez.

Aditz zoragarriak  
oldozkun bikaiñenak  
agartzeitu lurrez,  
egi zoragarriak  
egoki alkaturik  
jakintza bikaiñez.

Ta zu, bertsolaria  
euzkoen lore zara  
izkuntza bidean,  
barne doia dozu  
euzko gizon trebea  
euskera saillean.

Jakituria eta  
bikaintasuna dozuz  
zure elertian,  
zure gogo onenak,  
gora gora, jarten dau  
gizona aurrian.

Bertsolari jatorrak  
nunnai ager dira  
euzkotar lurrean,  
erri berberak dauka  
bertsolarien gatz  
arima barnean.



## LAUAXETA

Euskaldun argia  
loretan lore zara  
zelai ederrean.

## ZENTZUNA

Gizona zentzun bage  
beraren izatean  
kiskortuta dago,  
irudi txit larria  
daroa bere baitan  
gero ta miñago.

Giza argi bagea  
itxura galtzen doa  
gazadi aurrian,  
lepoa konkorturik  
arpeia tximurturik  
galzori larrian.

Nora-nai begiratz  
zentzu-gabe larria  
barregarri dabil,  
argirik ez buruan,  
biotza kili-kolo  
ez bizi ta ez il.

Zentzudun gizon piña  
erritar lorea da  
bizitza aurrean,  
beren izate oroz  
argitsu dabil lurrez  
gizonen bidean.

Eskola maisu ein da  
jakituriz ondurik  
beren izatea,  
zuzentasuna dauka  
beraren elburutzat  
zentzudun erara.

Burua ta biotza  
bial alkartu ditu  
urrezko jantzirik,  
erririk erri doa  
arazo bikaiñetan  
jakintzaz ondurik.

## EUSKALDUNA MUNDU ZEAR

Euzkoa mundu zear  
biotz zabalik doa  
argia zabaltzen,  
bere duintasuna,  
eratsu, agertzen da  
anaiak agurtzen.

Euzko seme jatorrak  
ondo artuak dira  
mundu zabalean,  
euzko giza semea  
egizko gizona da  
mundu ederrean.

Egi ta ontasuna  
bere bereak ditu  
euzkotar semeak,  
egiz doa mundura  
adeitasun guztiaz  
onartuz anaiak.

Gizartea ta lana  
anai lez artzen ditu  
edozein tokitan,  
burua oroz goitik  
zuzendari darabil  
lurralde danetan.

Euzko seme jatorra  
on-giroz begiraturuz  
doa urriñera,  
anai barriak daukaz  
zeru-lurren aurrean  
berari begira.

Euskaldun izatea  
zerutik artu dozu  
Jainkoak ondurik,  
munduak maite zaitu  
ontasun eder ori  
gogoz agurturik.

## EUSKALDUNA MISIOLARI

Misiolari doa  
euzko seme bikaiña  
Jaugoikoak deiturik,  
zerutik datorkio  
maitasunezko deia  
on-guraz beterik.

Euzko seme-alabak  
aukeratuak ziran  
erritar artean,  
gizon ta andraskoak  
mundu zear dabiltzaz  
Jaunaren aurrean.

Argia ta egia  
daroetz lur ontatik  
mundu zabalera,  
euskaldunen gogoan  
berez ezilkorra da  
zerura begira.

Nekeak ta ardurak  
ez dabe bildurtuten  
misiolaria,  
Jainkoa dabe lagun  
arazo bikain ortan  
arduraz betia.

Ta zu, Sabin maitea,  
etxetik urten zendun  
asmo onenean,  
Jaungoikoaren itza  
daroazu poz aundiz  
biotz barrenean.

Egiz maite zenduan  
Misiñotako lurra  
beraren berariz,  
Amerika mendiak  
Sabin dabe gogoan  
maitasun gurariz.

## BAKE ZALE

Egiz lore ederra da  
bake omengarria  
gizonen artian,  
bizia onduten dau  
mundu zabal ontako  
alkartasunian.

Gizon bat bake barik  
ezin da bizi lurrez  
nekeak goiturik,  
gorrotoa maltzur da  
biotzdunarentzako  
dana ondaturik.

Gorrotoak darabiltz  
ezbear saminenak  
mundu zabalian,  
gorrotoa ta guda  
biak bat egin dira  
odolen artian.

Euzko seme gailena  
berez da egizale  
bizitza onetan,  
euskaldunen erriak  
maitasun-zale dira  
bizitza lanetan.

Onginai orretatik  
alkartasuna dator  
lurtarren bizian,  
on egiñagaz poztu  
zuzentasunaren bizia  
lurraren gaiñian.

Euskaldunen erria  
maitasun zalea da  
Kristotar erara,  
onginai bereziak  
bake zoria dakar  
euzkotar zelaira.



## FRAILE IRAKASLEAK (VENTADES)

Mungiar adiskideak  
gora ta gora beti  
zuen bizitza jatorra.



## EUZKOTAR ANAIA

Pozik ederrenagaz  
biotza dardar dala  
errira adi nago,  
egiz da zoragarri  
euzkotarren erria  
betik goragiño.

Mendi eder artean  
aintzatsu bizi dira  
euzkotar sendiak,  
iturri ta zugatzak  
bere bereak ditu  
euzko izadiak.

Osasun biziz dagoz  
zelai ta zugadia  
eguzki aurrean,  
urdiña ta orleiak,  
gozaro, artzen dabe  
euzkoa lurrean.

Zeruak argitzen dau  
euzko seme kutuna  
eskarrez ondurik,  
baratza eder ortan  
gizadi bikaiñak dau  
itza ederturik.

Euzko anai argiak  
egiz dira ongarrri  
alkarren artean,  
biotz oneko dira  
zeruak aginduta  
bizitz ederrean.

Zuzentasun zale da  
euzkoa anaiekin  
egiz orbizturik,  
zentzun ta maitasunak  
gogoz alkartzen ditu  
anaiak pozturik.

## ATSEDENA

Bizitza eder batek  
on asko maite ditu  
beren inguruan,  
eguneroko lanak  
gogor egin bear dau  
zorion altsuan.

Bearrak goratzen dau  
gizonaren bizia  
gizarte maitian,  
erri on langilleak  
gora goraka doaz  
mundu zabalian.

Lanaren egiteak,  
gora gora, daroaz  
bizitza bideak,  
lanak poztuten ditu  
bizitz eder onetan  
euzkoen amesak.

Lanen ondoren dator  
atseden egarria  
gorputzen aldetik,  
aragi eta azur  
nekatu eiten dira  
lanaren bidetik.

Buru eta biotzez  
jardungo dau gizonak  
lan aberatzian,  
ederrena lortzeko  
zuzentasun argiaz  
sasoia danian.

Buru eta biotza  
pozez onduten dira  
atseden orduan,  
azur ta aragia  
barriztu eiten dira  
jarleku onduan.

## ZARTZAROA

Egiz itz aundia da  
gizon bikain artean  
zartzaro maitia,  
urteen joan etorriz  
gizona eltzen doa  
ongiroz betia.

Jakituri bikaiñez  
edertu dau bizia  
bizitz orduetan,  
egia ta urrea  
oparo, zabaldu dauz  
gizonen bidetan.

Erria goratu dau  
jakituriz ondurik  
aurrerapidea,  
aintza eta gorasun  
betoz jakituritik  
giza batzarrera.

Gizon on zentzuduna  
arduraz ibila da  
bizitz orduetan,  
pilosopi jantziaz  
erria ederturik  
egizko bidetan.

Gizon maitegarriak  
buruz eta biotzez  
ondu dauz urteak,  
dizdizera ederrak  
on, darioz begitik  
euzkotar semeak.

Gorputz eta arima  
osotu da gizona  
bizien aurrian,  
sasoirik aundienna  
eder giroan dago  
bizitza lurrian.

## GOIZIAN

Urrindik ikusten dot  
zeru-goiko argia  
bipil bipillean,  
urdiña ta zerua  
biak alkartu dira  
goitar ederrean.

Eguzkia zeruan  
urre-bitzetan dago  
urdiñean artean,  
argi ona darío  
egunsenti goizian  
zeru bitartean.

Egunsenti goizian  
zoragarria dator  
eguzki oria,  
argiaren ederrez  
zoramenetan dago  
izadi maitia.

Zerura adi dago  
mendi zoragarria  
goizian goizetik,  
egi egitan dago  
lur oro amesgarri  
orleiak ondurik.

Lurrera adi dago  
baserritar semea  
edertasunetan,  
nora-nai begiratz  
zoramena darío  
lurrak berenetan.

Goiz amesgarrietan  
zerua dizdiz dago  
urretxiñoletan,  
ta orlegiak  
agurka zeruari  
maitasun garretan.



## MUNGIA

Gora Mungiarren  
sinismen agurgarria  
maitasun giroz betia.

## ZINTZOA

Gauza, egiz, zintzoa  
ederretan eder da  
gizonen bizian,  
zintzotasun jokera  
egizko sustraia da  
gizonen aurrian.

Madari garau piñak  
zelaia onduten dau  
beraren ederrez,  
lurraren osasuna  
garau bikain biur da  
gizonen omenez.

Sagar garau ezitia  
gora goraka dago  
zugatz adarrean,  
erleak ta txoriak  
ekiñian dabiltzaz  
gozo ederrean.

Prisku ta melokotoi  
osasuntzuak datoz  
lurrera begira,  
eguzkiaren laguntzaz  
ta aize bikaintasunez  
ondurik bizia.

Mazti zoragarria  
biziz zintzotzen doa  
eguzki menpean,  
urregorria dator  
zeru goitik maztira  
giza omenean.

Giza seme zintzoa  
gauza ederra da  
sorkari danetan,  
adimen ta biotzez  
urrezkoa dirudi  
egite onetan.

## ALKARTASUNA

Giza alkartasuna  
deika dago burura  
bizitza onetan,  
usain gozozko itza  
gora goraka dago  
jakiturietan.

Munduaren biziak  
jakituria nai dau  
bizitz onenian,  
jakiturizko itzez  
zuzendu bear dira  
oinkadak lurrian.

Ikusi ta ikasi  
diño gure biziak  
lagunen artean,  
ona bildu bear da  
adimenaren eraz  
gizontasunean.

Ikasi eta landu  
egin bear da lurra  
gizontasunagaz,  
edertasun ortatik  
sortuko da bizitzan  
on dana gatzagaz.

Beste almen eder bat  
giza barruan dago  
ederrez ondurik,  
biotza da izenez  
maitasun on egiñez  
itzak alkarturik.

Burua ta biotza  
doai zoragarriak  
alkartasunean,  
doai bikain onekaz  
sortuko da bakea  
bizitz onenean.

## ELBURUA

Elburuen elburu  
betiko bakea da  
zerutar zorian,  
atseden eta poza  
egiz opaka dagoz,  
gizonen aurrian,

Lurtar arazoetan  
gizonen elkarreak  
dei dagi biotzez,  
ez dau gura goserik  
ezta eriotz miñik  
txarkeri samiñez.

Zerua amultsu da  
bere ondasun danak  
eskeiniz lurtarrei,  
errukiz deika dago  
zeru goitik lurrera  
beartsu guztiei

Egi maitalea da  
euskaldunen semea  
baratza lanean,  
ortuari gozoak  
opatus gizonen  
arazo artean.

Elburu polit batzuk  
ba-dira lur onetan  
gizonen deika,  
zuzentasun argia  
deika dago lurrian  
goizetik gabera.

Euskalerra maitea  
goratu gura leuke  
zuzentasunagaz,  
egiz, aintzatsua da  
erri bat aipatzea  
lanaren lanagaz.



## ERRIEN GIDARIA

*Errien gidaria  
itz arduratsua da  
gizonen bizian,  
erria itz ederra  
adimenez ondurik  
bizitz ederrian.*

*Erri eder jator bat  
ba-da mundu zabalez  
jakituriduna,  
argi-zur ta biotzez  
txit osoturik dauka  
bizitz almenduna.*

*Giza batzar nausiak  
erria sortuten da  
maitasun ederrez,  
izen goragarria  
sortu da jakituriz  
giza onbearrez.*

*Erriaren izena  
Euskalerra bera da  
ederrez ondurik,  
buruz eta biotzez  
erria sortzen dabe  
zoriontasunez.*

*Batzar nagusi onek  
buruak bear ditu  
jakiturizkoak,  
aintza eta gorasun  
erria goratzeko  
era onekoak.*

*Zuzentasun giroa  
berezkoa daularik  
euskaldun jatorrak,  
erria be jator da  
irudi ederrenaz  
onduta gizonak.*



DULCÍSIMA VIRGEN DE BEGOÑA

Madre amadísima, abrasad su alma llevándola  
a la eterna mansión de la Gloria. Amén.

Agur agur Ama  
gure amarik onena  
gure erri dana  
artu ta zaindu Ama

## EUZKO MAXA

Amesgarria zara  
irudi bikain ori  
edertasunian,  
mendi ta itxasoak  
danak adi daukazuz  
omen bikaiñian.

Ederra zara goitik  
eguzkiaz ondurik  
argitasunean,  
txit duin zara egalez  
urre bitzez jantzirik  
bikaintasunean.

Goitik eta beraiño  
lora bat dirudizu  
orlegiz bizturik,  
zabalera ederrez  
maitegarria zara  
onez orbizturik.

Bizkairantz begiratzuz  
balkoirik ederrena  
zara zu lurrian,  
ondo zuzendurik zagoz  
berezko doitasunez  
olerki antzian.

Maxa mendi aratza  
lurra goratzen dozu  
edertasunagaz,  
gogoz doaz gizonak  
zure ederra artzera  
maitasun onenaz.

Zerua eta lurra  
zugan bat egin dira  
edertasunian,  
orleia ta oztiña  
biak agurka dozuz  
mendi tontorrian.

## LAUKARIZ

Argiz beterik zagoz  
goialde bikaiñean  
dizdira ederrez,  
egunsentia dator  
goi-argiaz ondurik  
zure zoramenez.

Lurra, maiteki, dago  
zeru goira begira  
onginaiz beterik,  
semeak maite ditu  
alabak kutunago  
egiaz ondurik.

Zelai gaiñean dago  
Jainkoaren etxea  
gizadira adi,  
Egilleak maite dauz  
Laukariztar jatorrak  
onaren irudi.

Laukarizko erria  
zerura adi dago  
buruz ta biotzez,  
lurra eder dalarik  
zerua ederrago  
zoriontasunez.

Lurtar ogi zuria  
bizigarri dalarik  
urte batzuetan,  
zeruko zoriona  
amaige ederrago  
beti iraunetan.

Gora Laukarizko lur,  
aintzagarrria zara  
euzko lur maitian,  
ederra ta argia  
zuregan daroazuz  
ontasun betian.

## SEME AGURGARRIAK

Euzko izen ederra  
agertzen da ingian  
betirakoturik,  
egiz da ezilkorra  
semearen bizia  
itz onak ondurik.

Euzko sendi maitiak  
gogorik oberenaz  
maite dau erria,  
aintza eta gorasun  
euzkotar sendiari  
errira begira.

Sendi agurgarria  
ortzira adi dago  
eskar onenian,  
zerutik datorkion  
bizitzaren ederra  
eskertuz bizian.

Euzko seme argiak  
jakiturikz dabiltzaz  
bideak urratzen,  
gogoz dabiltzaz beti  
erriaren bizia  
egiaz argitzen.

Semerik bikaiñenak  
ernemiñetan dabiltz  
bizitza aurrean,  
lurre ondu nai dabe  
itxasora begira  
edertasunean.

Mendi bizkar alaiak  
edertuten dabiltzaz  
goizetik gabera,  
bizia bikaiñago  
ager al izan daiten  
eguzkiz batera.

## LARRABE

Izen almen aundiak  
goiz goizetik dakarkit  
irudi maitia,  
larrabe orlegian  
zoramenetan daukat  
arnasa guzia.

Nora-nai begiratzuz  
guztia eder dago  
Larrabe aurrian,  
mendiak gora gora  
ederrez deika dagoz  
osasun bitxian.

Zugatz ezbardin orleiak  
zerura adi dagoz  
poz jarioetan,  
erle ameslariak  
lorerik lora doaz  
adarren puntetan.

Be-alde aintzatsua  
ederrez betetu da  
zorakortasunez,  
zugatzik bikaiñenak  
zoramenetan dagoz  
argiaren aurrez.

Txori bikaiñak dabiltz  
arat-ona saltsari,  
goiz, eguzkipean,  
soso ta bidegarro  
izar biurtu dira  
kantu ederrean.

Larrabe maitegarri,  
ederra dariozu  
guztiz orbizturik,  
orleia ta urrea  
zугan alkartu dira  
guztiz bikaindurik.



## GOIKOETXEA'TAR ANGEL'EGAZ

Adiskide agurgarriak  
abegi onez artu  
alkartasun bizigarria.

## LORADI

Izadira begira  
txundituta daukadaz  
begien sustraiak,  
arrua barrenean  
gora-goraka dagoz  
lora apainduriak.

Goizalde eder ontan  
izadi dana dago  
ederrez urturik,  
mendi goiko egalak  
atsegin biziz dagoz  
urretan bizturik.

Arboladi orleiak  
lurra koroitzen dabe  
bikaintasunean,  
gora ta ederrago  
zoramenetan dagoz  
aritzak lurrean.

Gora ta ederrago  
loradi biurtu da  
lurraren babesa,  
arizti orlegiak  
dizdiz ederrez dagoz  
eguzki argira.

Baratza xarmangarria  
lore bitxiz ondurik  
zagoz izadian,  
eguzki ta mendia  
biak bat egin dira  
edertasunian.

Ta zu, ibai-aldea  
zoragarri sakusdaz  
lora ezbarðiñez,  
benetan eder zara  
baratz zuri-gorria  
zoriontasunez.



## LAN TOKI

Itz zoragarri zara  
beti gora-goraka  
lanaren bidean,  
zure ederrez dago  
gizona orbizturik  
bizitza aurrean.

Lan-toki maitetsua  
milatan eder zara  
gizonen bizian,  
bizi eragillea  
on egiten zabiltzaz  
gizonei lurrian.

Lan toki errimea  
biziz zagoz ondurik  
burdin ederretan,  
gero ta sendoago  
jarraitu dagizula  
ekintz ederretan.

Burdin zoragarriak  
ez daitezela galdu  
euzko lur azpian,  
euskaldun adimenak  
landu dagiezela  
gogo onenian.

Bizia eta lurra  
onez aurkitzen dira  
euzkoen artean,  
euskaldun zentzunduna  
lanaz pozturik dago  
bizitz ederrean.

Bizitz eder guztia  
lan sariak lagunduz  
bijo aurrera,  
lan-toki amultsuak  
abegi onez betoz  
euskaldunen artera.

## MENDIGUREN

Euskaldun abizenak  
egitan dira eder  
beren esanaiaz,  
bizitza mamiñetik  
aukeratuta dagoz  
asmorik onenaz.

Mendiguren jatorra  
gora-goraka dago  
eguzkira adi,  
lur barnetik artzen dau  
biziaren giarra  
berenez guri guri.

Zerutik datorkio  
argiaren indarra  
egun ederrean,  
urrez ondurik dago  
euzko lur mamintsua  
bizitz omenean.

Euzko lur mamintsua  
ederretan eder da  
beren izatean,  
mendi eta arkaitzak  
bira biraka dabiltz  
alkarren aurrean.

Ta zuk iturri bikain  
aitzgorri bitartean  
daukazu sormena,  
lurrealde bikaiñean  
gogoz aurkitzen zara  
mendien erara.

Mendiguren jatorra  
ederren eder zara  
mendi babesean,  
goia eta argia  
zeure biziz daukazuz  
euzkoen lurrean.

## ZELAIA

Zelai abizena  
ederretan eder da  
euzko gizonetan,  
euzkotar argitsuak  
maite dabe erria  
esker onenetan.

Solo zabal ederra  
artoz eta gariz  
bikainduta dago,  
gizonen janariak  
agertzen dira ortik  
oparo oparo.

Lurraren edermena  
bikainki ikusi dau  
euskaldun semeak,  
arkaitz, mendi zelaiak  
begiramen onenaz  
maite dauz euzkoak.

Euzko seme jatorra  
jakituriz joan da  
bere lur maitera,  
soloak esan dautso  
gogorik onenagaz  
emen, nago jauna.

Lurren izen jatorrak  
gizonen bizitzari  
egokitu dautsez,  
Zelaia ta Agirre  
bizi bizirik datoz  
lurren eskar onez.

Euzko seme bikaiña  
jakituri guztiaz  
dabil bere lurrez,  
lurra eta bizia  
biak alkartu dira  
giza esker onez.



DURANGO'KO IKASTETXEAN  
ANTZERKIAK EGITEN

## EUZKO BARATZA

Euzko baratz jatorra  
milatan eder zara  
izadi aurrian,  
nora nai begiratzuz  
egitan, zara eder  
gizonen begian.

Euzkoen lur guztia  
arrigarrero dago  
edertasun giroz,  
guazen mendietara...  
t'ederraren ederrez  
gora goraka dagoz.

Euzko mendi gailenak  
eder-bitzetan dagoz  
alkarren aurrean,  
bizitz zoragarria  
goitar pozez agertuz  
mundu zabalean.

Ibai alde aurrea  
zabal zabalik dago  
poz-giroz beterik,  
ederren zer eta dan  
izaki guztietan  
asmatu ezinik.

Lorarik bikaiñenak  
irriparreka dagoz  
errira begira,  
ta atsegin onenean  
erle gorriak doaz  
usain gozotara.

Jaiari adi dagoz  
larros zuri-gorriak  
urretxiñoletan,  
ederraren ederra  
gogoz ospatu nairik  
alaitasunetan.

## SORLEA

Ertilari iaioa  
egitan bikaiña da  
bizitza arloan,  
gizonaren burua  
argiz josita dago  
bizien ondoan.

Baserritar jatorra  
berebizikoa da  
lurraren aurrean,  
arnari gozoenak  
sorteragiten dautsoz  
lurrari aidean.

Lurraren giro onak  
asmetan ikasi dau  
ekiñaren bidez,  
lurrera adi dago  
arto ereitakoan  
egun-senti goizez.

Egoki aurkitu dau  
lurraren barne muiña  
goiz, egun-sentian,  
lurra ernemiñetan  
eguzkira adi dago  
ametsez betian.

Lurra eder-zale da  
euriagaz ondurik  
izate beria,  
baserritar jatorrak  
asmau dau lur barneko  
ongi-nai guztia.

Egunik ederrena,  
egoki, ikusten dau  
arto azientzat,  
ta artotza bikaiñenak  
sasoiz agertu ziran  
sendi onarentzat.

## LUR APAINDURIA

Lur maitegarria  
zuri adi nengoan  
basetxe zurian,  
biotza poz dardaraz  
zure aurrean neukan,  
goiz, zoramendien

Solo, zelai ta mendi  
gora gora neukazan  
edertasunian,  
eguzki urrezkoa  
barrekari etorren  
mendi tontorrian.

Apainduri nausia  
eguzki berbera zan  
mendi egalean,  
dizdizera ederrez  
agurtzen eban lurra  
aro ederrean.

Lurra ta eguzkia  
bat egin ziran goizez  
aro bikaiñean,  
ederra zeru goitik  
orlegia lurretik  
bikaintasunean.

Lur gaiñeko baratzak  
jateko bikaiñenaz  
apainduta dagoz,  
lan bikaiñak eginik  
goizetik ta gabera  
gizonaren gogoz.

Baratza eder ertzak  
loraz ondurik dagoz  
bikaintasunean,  
janari ta ederra  
biak alkartu dira  
giza omenean.

## MENDIKO ITURRIA

Gizona egarri da  
mendiaren aurrean  
udabarri goizez,  
egun zoragarria  
eskabide miñetan  
agertzen da lurrez.

Argia ta poza  
biak bat egin dira  
egun ederrian,  
izadi eder dago  
apaingarriz jantzirik  
udalen goizian.

Zugadi aintzatsuak  
gogoz, aurkitzen dira  
mendi egaletan,  
ernemiñetan dago  
lur mamintsu guztia  
zoramen garretan.

Urdailen egarria  
uraren billa dabil  
mendi zabalean,  
arat onat begira  
antzizka gogo onez  
troka guenean.

Urrundik ikusten dot  
iturri aintzatsua  
ur on garbietan,  
biotza, gogoz, doa  
aldatz eztian gora  
asmo onenetan.

Puntu eder bat ba da  
tontorraren menpean  
urez atonduta,  
gorputz izate dana  
berez, atsedendu da  
ur otza edanda.



SOLOZABAL'DAR PAULINO'RI BIOTZ BIOTZEEZ  
BASARI



Baserritarrak gara gu  
itxas alboan adi  
Euskalerra maitera.

## EUSKALDUN SINISDUN

Biderik bide noa  
goi argiak lagunduz  
arazo onetan,  
gauz eder asko dagoz  
mundu zabal guztian  
bikaintasunetan.

Egiz jatorrak dira  
giza jokabideak  
lurraren gaiñian,  
egitan ederra da  
sinismen goi argia  
bizien artian.

Egi ederrak dagoz  
mundu zabal guztian  
biziak onduta,  
jakituri ta erti  
lore bikaiñiak dira  
gizonak landuta.

Lorarik bikaiñena  
Jesusek ondu eban  
lurtarren artian,  
betirako bizia  
sinismenaren bidez  
opalduz lurrean.

Giz abots kantariak  
ederrez eder dabiltz  
mundu zabalian,  
jakituria daro  
giza seme argiak  
abesti zoilian.

Euskaldun gizadia  
Jainkozale izan da  
lengo aldietan,  
Jaungoiko berberagaz  
biza goraturik  
zeru ederretan.

## JAKITURIZKO EDERRA

Jakituri ederra  
bizi bizi, dagersku  
mundu zabalían,  
nora nai begiratzuz  
zoramená darío  
lurrari aurrián.

Sagar eta madari  
prisku oriz ondurik  
arrigarri díra,  
osasuna darie  
gizonen onerako  
zugatzetik bera.

Ainbeste masti eder  
lurrak apaintzen dagoz  
ederraren bidez,  
jakituria darie  
mats garau gozoenak  
bizia emonez.

Osasuna dakarre  
ainbeste bedar bizik  
giza onerako,  
bedar barnean dago  
osasun urrezkoa  
oparo oparo.

Solo eta zelaiak  
onez beterik dagoz  
jakiturietan,  
euren onari esker  
bizia, ondo, doa  
gizonen bidetan.

Zerutar jakituriz  
lur dana edertu dá  
jainkotar almenez,  
baserri ta lantegi  
jakituriz onduta  
egite ederrez.

## ALKAR BEGIRA

Izadi ta gizadi  
alkar begira dagoz  
euzkoen lurrean,  
maitasun ederra da  
egiagaz ondurik  
jakitun artean.

Mendi magal bikaiñak  
eguzkiz ederturik  
dizdizetan dagoz,  
ederren zein eta dan  
ezin esan daiteke  
itz onaren giroz.

Mendiak mendiari  
itza agertzen dautso  
ederraren bidez,  
mendi goitik ta bera  
alkar begira dago  
lur guztia urrez.

Mendi magal orleian  
alkar begira dagoz  
baserri zuriak,  
ametsezko bizia  
sortu dabe lurrian  
etxe ongarriak.

Mendi ta baserriak  
urrezko dirudie  
udalen goizian,  
etxe maitegarriak  
izpi gozotan dagoz  
zelai magalian.

Aintza eta gorasun  
euskal basetxeari  
erriaren aurrez,  
alkar begira dagoz  
basetxe ta erria  
zoriontasunez.

## OIARZABAL

*Euskal izen jatorra  
egitan, bikain zara  
gure lur maitian,  
ederrik bear ba da  
zoragarria zara  
euskaldun artean.*


*Zugatz eder ta bixiz  
bikaindurik daukazu  
oiñarri guztia,  
Zabaletan zabala  
agertu zihan lurrez  
irudi bikaiña.*

*Euskaldunen lurrean  
maitegarria zara  
basoen artean,  
sustrai sakonak dozuz  
zabalera osoan  
bizitz ederrean.*

*Bizia damotsazu  
oparotasun guztiz  
baserritarrari,  
egiz zara bikaiña  
izatez eta gogoz  
errirantza adi.*

*Oiarzabal kutuna  
izatez zara bikain  
zugatzen artean,  
aritz zoragarriak  
artzen dabe bizia  
zure biotzean.*

*Eguzkia eta zu  
maitekiro zagoze  
orlei ta urdiñez,  
beti alkar begira  
gogorik onenagaz  
zoriontasunez.*



IKASKIDEAK GASTEIZ'EN FRANCISCO TABAR ABADEAGAZ

## SOLOZABAL

Euskaldun lur izena  
egiz, bikaiña zara  
baserritarrentzat,  
zabal zabala zara  
lur jaubeak sorturik  
euskaldunarentzat.

Eguzkia ta zu  
egiz, alkartu zare  
ontasun bidean,  
eguzkia urre da  
ta zure lurra mamin  
bizitza aurrean

Goizeko eguzkia  
erne-miñetan dago  
solo zabalean,  
biotza zabal zabal  
zuregan ikusten dau  
euskaldun erara.

Mendi bizkar orleiak  
dizdizera ederrez  
zuri adi dagoz,  
ederretan ederra  
osotuten dozue  
bikaintasun giroz.

Solo zabal ederrak  
arto girotan dagoz  
ederki jantzirik,  
egunik egunera  
artaburu sendoak  
lur dana ondurik.

Zidarrezko garitza  
millatan eder zara  
solo zabalean,  
urrezko biotz dozu  
euskaldunei lagunduz  
solo zabalean.

## ABESTI JATORRAK

Abesti jator asko  
gozamenetan dabiltz  
euskaldun errian,  
mendi eta zelaiak  
gozamenetan dagoz  
entzuten aurrian.

Abesti jatorrenak  
doaz mendietara  
eguzki urretan,  
mendiak zabal zabal  
goizetik illargira  
entzumen garretan.

Soillube aintzatsua  
zutik dago entzuten  
euzko abestiak,  
ederra da mendia  
orlegiz apaindurik  
beren ertz guztiak.

Agur Jaunak dirautso  
abesti jatorrenak  
Euskalerrinari,  
Jaunak egiñak gara  
lur aintzagarri ontan  
zeruetara adi.

Mendi onen anaia  
Max zoragaria da  
Bizkai egalean,  
urrundik ikusten dau  
Euskalerrri guztia  
oroimen onian.

Egiz, zu zara gure  
erri bitxi onetan  
atseden nausia,  
zerua eta lurrak  
Euskalerrri onetan  
alkartuz bizia.



## GIZONTASUNA

Egi eder bat ba da  
kristautasun artean  
itz garbiz ondurik,  
ederretan bikaiña  
gizon zuzentasuna  
egitez bizturik.

Argi ta maitasuna  
bear ditu gizonak  
beren bizitzean,  
egi barik bizia  
larri geratuten da  
arantza artean.

Borondate zintzoak  
anaitzen dau gizona  
bizitza onetan,  
biotza urrea da  
egite onen bidez  
bizitza lanetan.

Egite onen bidez  
urretzen doa itza  
gizonen bizian,  
zuzentasunak dakar  
uste on bidezkoa  
bizitza aurrian.

Egite egizkoak  
zabalduen ditue  
etxeko ateak,  
egiaren aurrean  
adiskideak dagoz  
on-guraz beteak.

Gizontasun bikaiña  
euzko lorea da  
lur eder onetan,  
itza eta argia  
nai ditu euskaldunak  
bizitza lanetan.

## EUSKERA

Eleetan bikaiña  
aurkeztu zara lurrez  
izkuntza bidean  
itzez zara ederra  
zentzunez jakintsua  
zeure izatean.

Jakintsuen sen ona  
berezki dariozu  
izate guztian,  
argia ta ederra  
alkartuta daukazuz  
zeure izatian.

Zure joskera piña  
jakiturizkoa da  
argi guztiagaz,  
sorreraz zara bikain  
ondo aukeratua  
egiz ta gatzagaz.

Bertsolari jatorrak  
seme kutunak dozuz  
jakintzaz ondurik,  
plazarik plaza doaz  
zure doai ederrez  
jakintza agerturik.

Eskolaz eta mendiz  
ondo, ornidu zagoz  
jakintsu aurrian,  
zure izatez zara  
urrezko izkuntzetan  
euskaldun artian.

Buruz eta biotzez  
bardin bagea zara  
izkuntza sailean,  
jakintsu piñak dozuz  
baserri ta eskolan  
zure jardunian.



## ARABA'KO OROITARRIA

Gora Araba  
Euskalerrri maitea  
zure edertasunean.

## EUZKOTAR JATORRA

Euzko seme jatorrak  
nunnaitan ager dira  
egiz zuzendurik,  
egizaleak dira  
euzko buru biotzak  
argiak ondurik.

Argia deika dago  
zuzentasun ederra  
goizian goizetik,  
egi bidea nai dau  
gizonen buruetan  
eguzki sortzetik.

Euskaldun leiñargia  
zuzentza billa dabil  
baserri bidean,  
gora gora doa  
lanan jardunaldia  
solo zabalean.

Euzko eme zuzena  
zintzotasunez dabil  
legezko bidetan,  
ez dau gura guzurrik  
legearen joskeran  
giz ondamenetan.

Zuzentasun zale da  
euzko seme leiala  
biotz barrenetik,  
Euskalerra guztia  
onbide zurrez nai dau  
egiz argiturik.

Euzko seme argia  
berez da egizale  
lurraren gaiñean,  
erri eder bat nai dau  
gogorik onenagaz  
euskaldun artean.

## LENEN MAITE EGIK BETI

Lenen maite egik beti  
biziaren Jaubea  
ontasun guztian,  
maitegarriena da  
bizitz jabetasunez  
gizonen bizian.

Jaungoikoaren itza  
jakituri bera da  
zeru ta lurretan,  
aingeru eta gizon  
Berak sortuak dira  
maitasun garretan.

Biziaren Sorlea  
bat bakarra omen da  
zeru ta lurretan,  
gure bizitz bikaiña  
Jainkoagandik dator  
gurari onetan.

Erri eder bat dogu  
egiagaz ondurik  
begien aurrean,  
buru eta biotzez  
egiz maitegarri da  
mundu zabalean.

Izaki ain bikaiñak  
jakintza asko dauka  
bere izatean,  
ontasun guzti ori  
Jainkoagandik dator  
gure biotzean.

Zuzentasun zale da  
buru eta biotzez  
gizadi aurrian,  
maitasun txanbeliña  
zuretzat izan bedi  
euskaldun artian.

## ZURIZ JANTZIRIK DAGO

Zuriz jantzirik dago  
ertzetik ta ertzera  
lur omengarria,  
zuririk ederrena  
bere gain etorri da  
aizkide maitia.

Apala da biotzez  
euzkoen lurraldean  
errai garbietan,  
ez dau nai gorrotorik  
ezta maltzurkeririk  
lanaren bidetan.

Egiz da maitegarri  
beren otzantasunez  
goitik beragiño,  
erririk erri doa  
apaltasun guztia  
oparo oparo.

Ortziko izarketak  
gogoz, adi egozan  
lur bikain ontara,  
arizti ederrenak  
zeruetan adi  
alkarren gogora.

Maitasun eder biak  
zoratuta egozan  
ontasun bidean,  
lur au eder dalarik  
izarrak bikaiñago  
goi almen aldean.

Zeruak egun baten  
Euskalerrri guztia  
omendu nai eban,  
jantzirik bikaiñena  
gogoz opaldu eutson  
edertasunean.

## URREA ITZEAN

*Itz bi alkartu dira  
ederraren goi bidez  
euzko olerkian,  
urree ta itza  
bikain aurkitzen dira  
euzkoen artian.*

*Euskaldun adimena  
argiz apaindua da  
zoramen onean,  
zuzentasun bidea  
nai dau, beti, beretzat  
izkuntza lorretan.*

*Bide ortatik datoz  
egirik ederrenak  
izkuntza arloan,  
izketa jakintsua  
argiz eta ederrez  
ondo orniduan.*

*Urree eta itza  
biak alkartu dira  
izkuntza argitsuan,  
joskera jakintsua  
erti girotan dauka  
euzkoak buruan.*

*Euskera mamintsua  
edermiñetan dauka  
euskaldun jatorrak,  
urree eder dala  
euskera liraiñago  
euzkotar abotzak.*

*Gure izkuntz bikaiñak  
urre gorria dauka  
bere almenean,  
eta jakituriaz  
zabaltzen dauz bideak  
euzko lur artean.*

## EUZKO SEME ALABAK

Argiz eta biotzez  
apaindurik sortu zan  
erria lurrean,  
lorerik bikaiñenak  
gozartuz egokiro  
bizien artean.

Mendi orlei ta zelaiz  
apainduriko lurra  
egoan oinpean,  
atsegingarria zan  
mendien dizdizera  
urdiñarenpean.

Ederra ta bakea  
gogoz, alkartu ziran  
euzko izadian,  
jakituria dago  
izarretatik adi  
inguru guztian.

Maitasuna dario  
lurralde ertitsuak  
zeru goi ertzetik,  
lur oro, dardar, dago  
eskeintza gozoetan  
biotz barrenetik.

Izadi bikain ortan  
gizadi argitsua  
agertu zan itzez,  
giza seme alaba  
urre bitxiz jantziak  
zoriontasunez.

Maitasun ta bakea  
ziran erri gidari  
zuzentsunean,  
izkuntz zoragarria  
erri dana onduten  
jakintza bidean.





## GURE ARTEGIAK

Ardi maitale kutunak  
poztu euskaldun zelaia  
abegi onenean.

## MAITASUNA

Zerutik etorri da  
gizonak ondutera  
itz zoragarria,  
alkar maite egizue  
bakea etor dedin  
gizonen artera,

Arantzazko koroia  
artu eban Jesusek  
Judarren eskutik,  
maitasun ezaugarri  
izandu zan guztia  
biotz biotzetik.

Zerutar izatea  
maitasun zoria da  
Jaunaren aurrean,  
Aitak Semea emon  
lurra zoriontzeko  
bizitz ederrean

Semeak, gogoz, artu  
iraiñik gaiztoenak  
munduaren aldez,  
billotsik jarri eben  
gora gora josita  
gorroto zatarrez.

Noraiño elduten zan  
Jesusen maitasuna  
golgota mendian,  
samiñak ta iraiñak  
amai bageak ziran  
izadi aurrian.

Gizadi maitegarri,  
zabaldu biotz ori  
Jesus ikusirik,  
maitasun bikaiñena  
beso zabalik dago  
ongiroz urturik.

## OTSEINTZA

Lora eder eder bat  
otseintza da lurrean  
egiz zuzendurik,  
Jesusek emon eban  
argibide ziurra  
Kurutzean illik.

Bere Aitaz batera  
lurraren Jabe zanak  
otsein izan zan,  
gogorik samurrenaz  
bizia emon eban  
giza omenean.

Zeru-lurren Jaubea  
esana eiten dabil  
lur eta Kurutzean,  
jokera bikaiña da  
ona-dana egiñez  
gizadi otseintzan

Euzko gizon jatorrak  
leialtasun bikaiñez  
arduratzen dira,  
erri zoragarria  
lege zurrenen bidez  
zuzenduz urrera.

Euzko seme leialak  
ardura onez dabiltz  
arazo beinetan,  
ederrena opatuz  
maite dan erriari  
bizitz ederretan.

Geurea da geurea  
Euskalerrri maitea  
bizitza guztian,  
zure izkuntz ederrak  
gogoz omentzen zaitu  
lurtarren artean.

## EGUNSENTI EDERRA

Egunsenti ederra  
goizian goiztik dator  
ametsez ondurik,  
argi urre ederra  
zabal zabalik dator  
zeruak bildurik,

Zerua urdin urdin  
egon da gau guztian  
izarren aurrian,  
bedeinkapena eukan  
goragotik artuta  
izarren artian.

Urrezko eguzkiak  
bizi argia dakar  
zerutik lurrera,  
izar oro agurka  
eguzkiri damotse  
lurren zabalera.

Goizalde bikaiñean  
urdin ta eguzkia  
alkarturik dagoz,  
ta be-aldean lurra  
zeruetara adi  
pozaren poz-giroz.

Egiz da goiz ederra  
alaitasun betiaz  
eguna sorkeran,  
izadi pozgarria  
ames girotan dago  
edertasun-eran.

Gizadi aintzatsua  
edermiñetan dago  
zoramen bizitan,  
lur dana bikain dakus  
eguzkiko indarrez  
bizitz oparotan.

## EDURRA

*Edurra mara mara  
zeru goitik dator  
Gabon egunetan,  
otza da illuna  
biak alkartu dira  
gogorkerietan.*

*Agur izar gorriak,  
samiñez joan dira  
eskutu-zulora  
ixil-ixilik dago  
izardi indartsua  
beren miñetara.*

*Trumoia dardar dabil  
laiño sendo artean  
zeru-goi ertzetan,  
illuna eta otza  
gogoz alkartu dira  
euren poz girotan.*

*Dardara ta indarra  
asmo gogorrez dabiltz  
laiñoen artean,  
ortzia illundu zan  
izarrak estaldurik  
laiñoen ostean.*

*Laiñoak dira nausi  
goi-alde guztietan  
otzaren indarrez,  
zarata indartsuak  
bota ditu laiñoak  
erio samiñez.*

*Edurra bota-alean  
laiño aldetik dator  
egazka aidean,  
mendi eta zelaiak  
soin zuriz jantzi dira  
zugatzen artean.*

## ARRATS-BERA

*Arrats-bera ezitia  
zerutik agertzen da  
argien artean,  
urrezko eguzkia  
gozaro omen dator  
edertasunean.*

*Landara bikaiñenak  
sortzen ditu baratzenak  
ederren sor-giroz,  
bere bereak ditu  
mailluki gozoenak  
agokera gozoz.*

*Mendiak alai dagoz  
arrats-bera eztian  
argi gozoetan,  
dizdizera ederra  
gora-goraka dabil  
ames gozoetan.*

*Arrats-bera bikaiñez  
gora-goraka dabiz  
ume saltariak,  
buru-goiak argitu  
ta biotzak indartsu  
ondurik argiak.*

*Itxas urdin zabala  
ameskor agiri da  
Bermeo aldean,  
ederrez apaindurik  
dauka zabal guztia  
bere sabelean.*

*Ta ederretan eder  
zerua agiri da  
izarrez ondurik,  
maitasuna dario  
urdin zoragarriak  
izarren artetik.*



OMENALDIA MUNGIA'N

## GAU URDIN

*Ametsezko dirudi  
urdin zoragarriak  
gabaren erdian,  
bakea ta aintza  
bere baitan daroz  
urdiñak ortzian.*

*Maitasunez ondurik  
aurkitzen da ortzia  
beren ederrean,  
zoramena dario  
dizdizera ederrez  
urdintasunean.*

*Zeru urdin guztia,  
bitxiki, apain dago  
urrezko izarrez,  
urdiña ta urrea  
gogoz alkartu dira  
goitar zoramenez.*

*Goia agurka dago  
lurrera aditurik  
dizdiz ederretan,  
gaba eta izarrak  
biak bat egin dira  
urdin aratzetan.*

*Gizadi maitekorra  
arrimen aundiz dago  
ortzira begira,  
edermiñez bai dago  
zeruko izardia  
ertzetik ertzera.*

*Eguzia ba doa  
izardia agurtuz  
maitasun eztitan,  
gau illun maitetsua  
bakez beterik dator  
beraren bidetan.*



## IZADI

Izardi xarmangarri  
urre bitxiz jantzi da  
zerutar eskarrez,  
zeru goi eskertsua  
gora goraka dago  
zoriontasunez.

Gizonen adimena  
ederrez arrituta  
gora adi dago,  
zerua bikaindu da  
gabaren urdiñean  
txit arrigarriri.

Lur orlegi guztia  
amets girotan dago  
maitale kutuna,  
ortziaren ederrak  
ausarki artu dautso  
biotz ontasuna.

Giza jakituria  
zoramenetan dago  
izarren ederrez,  
urrea ta urdiña  
Jaunak alkartu ditu  
aintzaren omenez.

Mendi eta zelaiak  
dizdiz gozotan dagoz  
ortziaren aurrez,  
zugatzik ederrenak  
ezin dira aspertu  
begiratze pozez.

Zuk itxaso maitea  
zerua dirudizu  
jantzi urdiñagaz,  
zeru izar bikaiñak  
euzko semeak dira  
zuzentasunagaz.

## LANGILLEA

Izen txit bikaiña da  
gizonaren bizitzan  
langille jatorra,  
gizona bear barik  
guztiz galduta dago  
ondamen gaiztora.

Gizon seme trebea  
mendi goietan dabil  
lanaren bidean,  
otatz bildurgarriak  
kendu nai ditu gogoz  
mendi bizkarrean.

Lurra garbituz geroz  
alai dago mendia  
beren ederretan,  
ide zoragarriak  
orlegiz jantzi dabe  
tontorra benetan.

Langillea ba-doa  
baratza alderdira  
egun pozgarrian,  
atxurra ta sardea  
berarekin daroz  
giro onenian.

Udabarria dago  
argi giro ederrez  
kantu bikaiñetan,  
baratz eder guztia  
esku opaka dago  
lanaren bidetan.

Langille errimeaa  
gogorik onenagaz  
asten da lanean,  
ta lurra onartzen dau  
atxurraren lan ona  
aro ederrean,

## ARGIA

Urrezko bola baten  
agertzen da argia  
mendi tontorrean,  
urreea ta lurra  
gogoz bat egin dira  
alkartasunian.

Zerua urdin urdin  
zoramenetan dago  
bake-poz girotan,  
eguzki urrezkoa  
edermiñetan dago  
gogo onenetan.

Argia dator goitik  
lur biotz zabalera  
maitasun giroan,  
ta lurra, pozik, dago  
eskerrik onenagaz  
artzeko kolkoan.

Euriaren ondoren  
agertu da argia  
euzko lur maitian,  
eguzki eta lurra  
zoramenetan dagoz  
osasan garbian.

Solo eder orleia  
gora-goraka dator  
bizitzaz ondurik,  
baserritar zintzoa  
gogo onenaz dabil  
ertzak atondurik.

Egunik egunera  
bizia ontzen doa  
garitz bikaiñean,  
galburu bikaiñenak  
orbiztu dabe lurra  
bizitz ederrean.



## IRUJO JAUNAGAZ MUNGIA'N

Euskaldunen bertsoa  
pozez barreka dago  
alkartasun bikaiñean.

## LORADI

Baratza ederrena  
etxe aurrean dago  
zerura begira,  
orlegizko diztiraz  
eguzkiaren aurrez  
edertzen lur bera.

Baratza nagusia  
loradi biurtu da  
udalen goizian.  
Ederra ta argia  
gogoz bat egin dira  
goizeko argian.

Usain gozozko lorez  
bikaindu da baratza  
eguzki urretan,  
loradi biurtu da  
etxe aurre guztia  
itz zoramenetan.

Txori abeslariak  
lora artean dabiltz  
usain gozoetan,  
kantuaren ederra  
egoki artuten da  
entzumen danetan.

Giza bidelariak  
begiz eta belarriz  
zoramenenez doaz,  
paradizu dirudi  
aurrealde guztiak  
edertasun loraz.

Baratz zoragarriaz  
lurra bikaintzen doa  
usain gozoetan,  
ta zeruko argiaz  
maitegarri biur da  
lurra alboetan.

## JAKITURIA

Itz jatorra benetan  
jakituri ziurra  
gizonen artean,  
argitasun bidean  
sortu eban Jainkoak  
gizona lurrean.

Almen zoragarri bi  
artu zitun gizonak  
bizitza onetan,  
burua ta biotza  
urrezko bitxi dira  
almen onenetan

Zeru goiko argiaz  
lurra zuzenduko dau  
egizko bidean,  
jokabide argiak  
ondu bear dau lurra  
giza omenean.

Gizon egiazkoa  
jakituri az dabil  
lurren omenetan,  
zuzenezko argiak  
goraldu bear ditu  
itzak lur onetan.

Goi jakituriagaz  
sorturik dago lurra  
egal danetaik,  
giza bizitz ederrak  
argiz ondu bear dau  
gizonen burutik.

Argiaren laguna  
biotz urrezkoa da  
zoramen argitan,  
bien arte daroa  
lur arazo guztia  
pozezko auzitan.

## ALMENA

Almen aundiak dagoz  
era ezbaridinetan  
bizitz ederrean,  
zerutik datoz danak  
alkartasun bikaiñez  
giza omenean.

Jakintzaz sortua da  
gizadiko bizia  
bikaintasunian,  
mendi zoragarriak  
jakintza ta ederra  
daukaz biotzian.

Zelai bardingabeak  
edertasun ta eztiz  
orlegitu dira,  
txori abeslariak  
zoramenetan dabiltz  
zelaitik zelaira.

Aritzaren almena  
egiz da zoragarri  
euskaldun lurrean,  
ederretan eder da  
beren duintasuna  
basetxe aurrean.

Edermin guztietan  
giza semea dago  
ertiz apaindurik,  
gizonaren buruak  
zeru izar dirudi  
argiz orniturik.

Almenik almen dabil  
gizonaren burua  
egizko lanetan,  
laguntzarik onenak  
nai ditu gizonentzat  
zurtasun bidetan.

## IKUSMENA

*Almen eder askogaz  
ondu eban Jainkoak  
gizonen bizia,  
bizia aberatsa da  
zeregiñez ondurik  
gorako bidia.*

*Gizonen bizitzeak  
ardura asko daukaz  
bizitz eder ontan,  
giza duintasuna  
gutziz aberatsa da  
lurraren oiñetan.*


*Almen eder artean  
bat ikusmena dogu  
bekoki aurrean,  
begiak zabal doaz  
gizona il ez daiten  
ezbear artian.*

*Gizonak, goiz, urrindik  
ikusten dau erria  
maitasun bidian,  
beraren gibeletik  
artu dau arnasia  
ontasun artian.*

*Ikusmenak ba-daukaz  
beste eder-gai batzuk  
biziza onetan,  
biotzez ta gorrotoz  
ez da bardin gauzia  
bizitz ataletan.*

*Maite giro ederra  
bikaiña da bizitzan  
lagunen artean,  
urrezkoa dirudi  
onberadun biotzak  
bizitz ederrean.*





## ETXEBARRITAR ANAIAK

## ARGI ETA GARBI

*Bizitz argi garbia  
eskatzen dau Jainkoak  
lur maitegarrian,  
Jaungoikoak ez da nai  
zorakeri larririk  
lurraren aurrian.*

*Jainko semeen bizia  
zorioneko da  
maitasun guztian  
beragaz biziteko  
sortu eban gizona  
zeru ederrian.*

*Bitxirik aundiena  
eskeintzen dautse Jaunak  
gizonei zeruan,  
bere bereak ditu  
seme alaba danak  
zorion altsuan.*

*Mundu zoragarria  
nai dau Jainko Altsuak  
seme alabetan,  
egi ta maitasuna  
gura ditu danentzat  
zorion bidetan.*

*Argiz ikusi nai ditu  
seme-alaba danak  
egiaren aurrez,  
ez dau nai ondamenik  
beretar maiteentzat  
zorion betean.*

*Onoimen ederrena  
maitasun indarra da  
gizonen artean,  
on egite nausiak  
edertzen dau bizia  
zuzentasunean,*

## ERRUKIA

Itz bedeinkatua da  
giza zentzun artean  
kristau errukia,  
errukia gura dau  
zapalduta daukanak  
bizitza larria.

Errukidun gizonak  
biotza daka zabal  
gizadi aurrian,  
erruki ta maitasun  
ondo, alkartzen dira  
zuzentasunian.

Erruki ta maitasun  
lora bikaiñak dira  
bizitza aurrian,  
zeru goitik dator  
eskabide on ori  
alkartasunian.

Jainko guztiz Altsuak  
errukia gura dau  
beren semeetan,  
urrezko biotzetik  
gogoz, sortu bear dan  
itz au lagunetan.

Aundikeri gangarra  
bijoia biotzetik  
urrutietara,  
ta ordezkari betor  
laguntasun bikaiña  
giza biotzera.

Errukia gura dot  
ta ez eskeintz ustelik  
diño abestiak,  
maitasunak ontzen dau  
gizonaren bizia  
ondurik bideak.

## ZUBIA

Zubi polit bat dago  
etxearen alboan  
zugatzez ondurik,  
ametsezko dirudi  
etxe biren erdian  
arriz apaindurik.

Jaioterri maitean  
gora goraka zagoz  
uraren gainean,  
itz zoragarrienak  
oroituten zaitue  
edertasunean.

Eguzkia jatortzu  
egunsenti goizian  
urrezko janzirik,  
zubia ta zerua  
alkar begira dagoz  
gorantz aditurik

Zubiak zaintzen ditu  
uren gogorkeriak  
gabaren erdian,  
baserri pozgarria  
ainzatan agerzen da  
uraren aurrian.

Udea berez dator,  
intxaurrak eltzen doaz  
eguzki aurrian,  
txoriak alai dabiltz  
adartik adarrera  
goizeko argian.

Danen erdian dago  
biziari laguntzen  
zubi ongillia,  
txoriak abi eiten  
zubiaren azpian  
bizitza barria,

## ERIoTZA

Egiz izen aundia  
bizia kentzen dabena  
dardara nausia,  
arrokeri guztiak  
berarekin daroaz  
agurtuz bizia.

Ain eder da bizia  
guztiz maitegarria  
gizonen artian,  
Jaungoiko Almentsuak  
maitasun onenagaz  
sorturik lurrian.

Eriotza ondoren  
bizia amaitzen da  
erbeste onetan,  
gizon Jainkozaleak  
zabal daukaz ateak  
zorion bidetan.

Gizon Jainkozaleak  
bitxirik ederrena  
dauka itxaroten,  
lur nekeak amaituz  
bakea eta poza  
zeruan ondoren.

Gizon bikain zintzoak  
gogoz agurtuten dau  
bizia lurrean,  
amai bako bizia  
gogo onez artzeko  
zeru ederrean.

Gora ta gora beti  
amai bako bizia  
zoriontasunez,  
Eskerrak Jainkoari  
laguntza danak gaitik  
biotz maitasunez.



ETXEBARRI NIRE ERRIAN

## ZABALDIA

Lurralde nagusia  
bizi bizirik dago  
ibai inguruan,  
edermiñetan dauka  
inguru doi guztia  
zugadi buruan.

Zugadi aintzatsuak  
gora goraka dagoz  
edertasunean,  
arizti orlegiak  
ederretan nagusi  
zugadi artean.

Zelai ertzetan dagoz  
lorarik bikaiñenak  
zugadi buruan,  
zelaia ta lorea  
gogoz bat egin dira  
edertasunean.

Zabaldi aintzatsua  
zerura adi dago  
ederrez ondurik,  
izarrak adi dagoz  
zeru goitik lurrera  
guztiz arriturik.

Landararik bikaiñenak  
zorionduten dabe  
inguru guztia,  
ederra goitik bera  
eskertik eskumara  
zorion betia.

Zabaldiaren goian  
etxe zuria dago  
eguzki aurrian,  
baserritar kabia  
osasunez beterik  
edertasunian.

## BAKEA

Egiz bedeinkatua  
gizadiko bakea  
ontzea lurtarrei,  
gauzarik bikaiñena  
eskeini leikioe  
bizitzan gizonen

Euzko seme jatorrak  
bake gozotasuna  
gura dau bizian,  
egi ta zuzentasun  
bear ditu gizonak  
ontasun bidian.

Gizonaren bizia  
izatez da jatorra  
sormen onenean,  
burua ta biotza  
bakerakoak dira  
sormen ederrean.

Gizonaren bizia  
egirako sortu da  
bake bikaiñetan,  
buru egizaleak  
ez dau nai burrukarik  
gaiztakerietan.

Gizonaren biotza  
bakerako sortu zan  
euskaldun lurtean,  
egi ta maitasuna  
urre gorriak dira  
euzkotar artean.

Loretan lorea da  
bake zoragarria  
bizitza maitian,  
gizon omengarriak  
ez dau nai burrukarik  
bizitz ederrian.



## OBEN

*Arima loituten dau  
gaiztakeri guztiaz  
gizonen aurka,  
obena mingarri da  
egia zapaldurik  
arrantzaz goraka*

*Gizonaren bizia  
zapaldu gura leuke  
dongakeriagaz,  
berezko indar txarra  
gaiztakerian dauka  
asmo baltzenagaz.*

*Oben tamalgarria  
giza ondarena da  
ezbear aundian,  
beren zatarkeriaz  
bizia kendu dautse  
gizonei lurrian.*

*Obenak il gura dau  
gizonaren bizia  
neke saminpean,  
oben gogaizto baltza  
ezpata zorrotza da  
bizitza aurrean.*

*Munduan zear dabil  
atsegiña eskeintzen  
giza gaisoari,  
gizonen etsaia da  
guzurrez estalduta  
itza gizonari.*

*Oben negargarria  
gora goraka dabil  
mundu zabalean,  
bizia kendu nairik  
txakeri ustelagaz  
biziei lurrean.*

## BARRI ONA

Zeru goitik eldu da  
bitxirik ederrena  
egun bikaiñean,  
gizona adi egon  
laguntzari begira  
osasun bidean.

Bizia ederra da  
laguntzaz indarturik  
bizien lurrian,  
maitasuna dario  
goitar biotz zuzenak  
bizitza aurrian.

Gizonaren egintza  
ardura aundiz dago  
lurreko lanetan,  
laguntza bearreko  
aurkitzen dau bizia  
ordu guztietan.

Gizona ez da jaio  
lurrean izateko  
betiraun giztian,  
elburu eder bat dau  
zuzen bidez lortzeko  
lurraren gaiñian.

Bizitz zoragarria  
adi dauka zerutik  
maitasun onenaz,  
deika dauka zerua  
gizona saritzeko  
zoriontasunaz.

Barri ona daukagu  
bideak argitzeko  
zuzentasunean,  
egi ta maitasuna  
argi bideak dira  
giza omenean.



## ARRIETA'KO PELOTA LEKUAN

Arrietako gaiña  
zoragarria zara  
eguzki aurrian

## JESUS OTZAN ETA APAL

Jesus gure Jaun maite  
biziaren Sorlea  
gugaz, emen dago,  
gogorik onenegaz  
guri laguntzen dabil  
oparo oparo.

Jaun ta jabe izanik  
guri begira dago  
errukiz beterik,  
seme gaisoak gara  
zeru-lurren aurrean  
gaitzez ondaturik.

Giza seme larria  
erne-miñetan dago  
estutasunian,  
gero ta larriago  
indarrak estaldurik  
bizitza aurrian.

Lagun on bat daukagu  
gure bizitz aurrean,  
zerutik begira,  
txit eurrikiorra da  
zuzentasun zaleei  
adituz lurrera.

Jesus guztiz otzana  
erruki zaite gugaz  
gaisoen lurrian,  
zuri begira gagoz  
egunik egunera  
estura aurrean.

Jesus Biotz Apala  
goragarria zara  
zeru ta lurretan,  
gora gure Egillea  
aintza eta gorasun  
zeru ederretan.

## LAGUN URKOA

*Itz bikain bikain onek  
zoragarriak dira  
euzko iztegian,  
ederraren ederrez  
maitea sortzen dabe  
euzko biotzean.*

*Gizon bat lagun barik  
ezin bizi leiteke  
bakardi larrian,  
bakardade illuna  
guztiz mindurik dago  
sorterri maitian.*

*Lagun urko zintzoa  
lagun bikaiñena da  
bizitza onetan,  
egi ta maitasuna  
bere bizitzan dabiltz  
zenizun onenetan.*

*Gizon seme zintzo bi  
urrezko bitxi dira  
alkarren artean,  
egi ta maitasuna  
biotzetan daroez  
osasun garretan.*

*Lagun urko zintzoa  
lore bikaiñena da  
zerura bidean,  
ona eta zuzena  
biak alkartu ditu  
bizitz ederrean.*

*Lagun urko doneak  
zerua eta lurra  
maite ditu gogoz,  
lagun danen artean  
egia zabaltzen dau  
zerutar goi asmoz.*

## JESUSEN MAITASUNA

Itz eder aundiena  
Jesusen abotsa da  
lurralde onetan,  
Euskalerra ederrak  
ez dau obarik entzun  
zeru ta lurretan.

Jesusen maitasuna  
beren argiz ondurik  
aintzagarria da,  
mundu ontan ez dauka  
itzaltasun bardiñik  
lurrera begira.

Zerua eta lurra  
bat egin ebazan  
Golgota mendian,  
ainbeste maite eban  
giza seme larria  
lur danen aurrian.

Jesus gure Jaun maite,  
gizon larri minduak  
zer dauka zuretzat,  
zure bizitz ederra  
gogorik onenagaz  
eskeiniz beretzat.

Euskalerra maitea,  
gaur, eskerka daukazu  
erri ta mendietan,  
Euzkoak maite zaitu  
zure odola gaitik  
kalbario gaiñetan.

Bizi Jabe izanik  
dana eskeini zendun  
munduaren alde  
zeru-lurren.ateak,  
gogoz, zabal zenduzan  
Kurutzan odolez...

## JAUNAREN SERBITZARI

Lurrez egin leiteken  
gauzarik aundiena  
zuzentasuna da,  
zuzentasuna berez  
argitasun guztiaz  
zeru goira doa,

Giza seme guztiak  
Jauna otseinduteko  
sortu gara lurrez,  
Jauna dogu Egille  
bizitza labur ontan  
egizko maitasunez.

Zerua eta lurra  
bereak ditu Jaunak  
maitasun guztiaz,  
lurtar seme alabak  
beragaz bizitzeko  
sorturik graziaz.

Jaungoiko maitetsuak  
lurrean jarri eban  
gizadi maitia,  
lur gorritz ta mendiz  
zurki landu egian  
zeruko bidia.

Bizia landuteko  
otoirik ederrena  
irakatsi eutsan,  
geroztik kistar onak  
Jesusegaz dabiltzaz  
otoi enparantzan.

Jesus da Irakasle  
gizona Aren jarraille  
otoi ta lanean,  
Jaunaren serbitzari  
zintzo jokatuko dau  
gizonak lurrean.

## ERRUKI ZAKIZKIGU

Giza pekatariak  
errukigarri gara  
erbeste onetan,  
samiñez gaisotu da  
giza seme larria  
lurtar arantzetan.

Gizon pekataria  
larri, aurkituten da  
arantza artean,  
zirika iabilkioz  
etsai amorratuak  
gau ta egunean.

Giona bake barik  
larri aurkituten da  
bizitza aurrian,  
gaiztakeri gogorrek  
ausi dautso bizia  
izate larrian.

Gizona ez da sortu  
arantza arterako  
gaiztakerietan,  
gizonaren biziak  
bakez izan bear dau  
lurren egaletan.

Buru eta biotzak  
argia bear dabe  
egiaz ondurik,  
zuzentasunerako  
sortua da gizona  
itzak indarturik.

Giza seme gaisoa  
erruki eske dabil  
zerutar Jaunari,  
zuzentasuna nai dau  
laguntza onen bidez  
opa zeruari.





LAUKARIZEN LENENGO JAUNARTZEA  
JONAITZ, ARKAITZ, XABIER

Anai zoragarriak  
jarrai, beti, bikainki  
gaurko argitasunian

## JAUNA ADI DAGO

Jaunaren aurrez gagoz  
mendi eta zelaietan  
laguntzaz ondurik,  
ez gaitu, iñoiz, izten  
arkaitz gain zurietan  
zoritxarpeturik.

Gure bizitza barri  
argitsu ikusten dau  
izarren artetik,  
errukigarri gara  
gaiztakeriak gaitik  
itza ondaturik.

Bere bereak gaitu  
sormenetik onaiño  
maitasun guztiaz,  
zerutik adi dago  
gizadi guztiari  
lagunduz biziuz.

Giza jokabidea  
samiñez ikusten dau  
sarri, zeru goian,  
giza alkartasuna  
errukiz onarturik  
aingeru artian.

Jainko maitegarria  
zerutik adi dago  
gizonei lurrera,  
bere seme alabak  
gogoan darabiltzaz  
zerutar erara.

Zeru eta lurra  
bere bereak ditu  
sormen ederrenez,  
lurra eder dalarik  
zerua bikaiñago  
zoriontasunez.

## ZUZENTASUN ZALEAK

Giza seme jatorrak  
zuzen zaleak dira  
bizitza aurrean,  
egirik ederrena  
zuzentasun itza da  
bizitz ederrean.

Alkartasuna nai dau  
euzko seme jatorrak  
langille bidean,  
anaitasuna nai dau  
egiagaz ondurik  
gizonen artean.

Euskalerrri zintzoa  
zuzentasun zale da  
egizko bidean,  
egia ta ontasuna  
nai ditu euskaldunak  
bizitza maitean.

Euzko seme ondua  
gizon berezia da  
jatortasunean,  
buru eta biotzez  
zintzo jokatu nairik  
bizitz ederrean.

Zuzentasun zale da  
euzko seme argia  
munduaren aurrez,  
ez dau nai txarkeririk  
ez gorroto zitalik  
ondamen samiñez.

Euzko seme leiala  
ontasun billa doa  
maitasun guztiaz,  
zuzenbide argia  
bizitzez onartzen dau  
goi argi biziaz.



Mungia bikain  
zure irudiak  
goratuten dau  
Euskalerra maitia

## ONTASUNA

Gizonen ontasuna  
egiz lora bikain da  
baratz ederrean,  
usain gozo dario  
loretan lore danak  
bizien lurrean.

Gizon egi zalea  
jakituritik doa  
bizia onduten,  
zuzentasun bidea  
gogoz maite izanik  
biotzez zuzentzen.

Burua ta biotza  
gogotsu darabiltzaz  
egizko bidean,  
jokabide onena  
maitasuna deritxo  
alkartasunean.

Ontasun argitsua  
dizdizera ederrez  
dabil sorterrian,  
mendiak maite ditu  
argiaren antzera  
eguzki aurrian.

Ongi-nai maitetsua  
bitxi bikaiñena da  
erritar artean,  
gogoz on egin nairik  
aurkitzen da zintzoa  
gizontasunean.

Ontasun ongillea  
biderik bide doa  
urrezko bitzetan,  
ona ta maitasuna  
biotzez zabalduten  
bizitz ederretan.

## ODOLEZ EROSI GAITUZU

Jesus gure Jaun maite  
ezin asturikoa  
bizitza ederrez,  
ontasun bera zara  
lurtar gizonarentzat  
zerutar eskarrez.

Bizitz ertzik bagea  
gizondu egin ziñan  
bizien lurrean,  
bizitz zoragarria  
apalik agerturik  
lurtarren artean.

Giza bizitza artu  
ta beste gizon bat lez  
bizi izan ziñan,  
Jainkotasun guztia  
estaldu egin zendun  
gizatar bizitzan.

Egiz maite zenduan  
gizadi samindua  
lurralde onetan,  
bizitza samindunak  
egi bidez arturik  
giza arduetan.

Odolez ustu ziñan  
Kurutzaren gaiñean  
samiñez beterik,  
bizia emon zendun  
gizadiaren alde  
errukiz ondurik.

Biziaren Jaubea  
billotxik jarri eben  
munduaren aurrez,  
ta Zuk onartu zendun  
gizadiaren alde  
errukiz ondurik.

## EUSKALDUNA

Buruaz ta biotzez  
sortua da gizona  
bizitza ederrez,  
Jaunaren irudia  
arimaren aldetik  
bizitza ederrez,

Lurtar izakietan  
aintzagarriena da  
ederrez ondurik,  
argi ta maitasuna  
bitxirik ederrenez  
bizia sorturik.

Argi duintasuna  
gogo onez darama  
euzko gizadiak,  
jakituri bikaiña  
biotz onez maite dau  
euzkotar semiak.

Erri eder bat dator  
jakituri bidetik  
zentzunez ondurik,  
jokabide zuzenak  
daroe gizadia  
egia sorturik.

Erri egizalea  
euskalduna dan eran  
bizita onetan,  
alkartasun eder bat  
egitan sortuten dau  
biotz zuzenetan.

Egizko biotzetik  
erri eder bat dator  
euzkotar girora,  
elkarte maitetsuak  
bizia onduten dau  
maitasun erara.



Euskalerra zoragarria  
itxasoz dago inguratua  
itxastar gizon errimeakaz  
egizko lanez duindua



## LANTZAR BEDEINKATUA

Lantzar bedeinkatua  
apal apalik dago  
mendi barrenean,  
zabalera ederrez  
ondurik aurkitzen da  
bake ederrean.

Beiak eta zaldia  
gogotsu dabiltz bertan  
larra gurietan,  
eguzkia zerutik  
agurka guztieri  
urre dizdizetan.

Nozik beñean datoz  
laiño bizigarriak  
zeru goi aldetik,  
ta trumoi izketan  
dardara gozoenaz  
laiñoen atzetik.

Egun zoragarria  
agertu da goizian  
euri ederregaz,  
lengo lantzar maitia  
ernemiñetan dago  
pozaren pozagaz

Lengo lurta larria  
irriparez asi da  
goizaro maitian,  
euri ta eguzkia  
biak alkartu dira  
anaitasunian.

Lora zuriak datoz  
eguzkizko laguntzaz  
giro ederretan,  
eta erle panpiñak  
ezti billa doazi  
eguzki urretan.

## LAPUR DAMUTUARI PARKATU

Mundu larri onetan  
okerbide gaiztoak  
gogotsu dabiltzaz,  
giza seme larria  
estu ta larri dabil  
beraren bizitzaz.

Arimaren etsaiak  
gogoz dabiltz lurrean  
gizonaren aurka,  
ondamendia nai dau  
gizadiaren kaltez  
gorrotoz arrika.

Gizona estu dabil  
etsaiaren aurrean  
errenka larrian  
diabruaren lana  
giza ondatzea da  
oinpeko lurrian.

Burruka onen aurrez  
maitasun guztiagaz  
Jaungoikoa dago,  
gizonak ondu nai dauz  
zuzentasun bidean  
eskarrez oparo.

Adimendun gizonak  
Jainkoa ikusten dau  
laguntasunian,  
txarkeririk ez dau nai  
burruka gogorretan  
estutasunian.

Jainko Guztiz Altsuak  
abegi onenegaz  
maite dau gizona,  
lapur damutuari  
gogoz parkatzen dautzo  
beraren obena.

## BARKAMENA

Gizonak gizonari  
zauriak egin dautsoz  
gaiztakeri bidez,  
txarkeri aundia da  
gizona iraintzea  
gorroto indarrez,

Gizon buru argiak  
lotsaz aurkitzen dira  
gizadi aurrian,  
onerako deituak  
sarri, gorrotoz dabiltz  
bizien lurrian.

Gizonak gizonari  
adi zadi laguna  
dirautso biotzez,  
zu maitatu bagerik  
goizetik gaberaiño  
larri nabil lurrez.

Bizikera illun au  
samingarri jaku  
gizonen artean,  
gure buru biotzak  
beste bizikera bat  
nai dabe lurrean.

Bake ta anaitasuna  
egokiago dira  
biotz zabaletan,  
gugandik kendu daigun  
eriotzgarria dan  
itzala benetan.

Gogorik onenegaz  
parkatzen dautzut miña  
anaitasun ordezt,  
gizatasun argiak  
alkartasuna nai dau  
biotzaren pozez.

## TXIKIAK AUKERATU DITU

Egite aundia da  
gizadi salbamena  
lur arazoetan,  
gizadi ta zerua  
biak bat egitea  
osasun bidetan.

Burruka aundia da  
lurrean sortu dana  
bizien artean,  
lurra eder dalarik  
zerua aintzatsuago  
bizitza aurrean.

Gizonak bizia nai  
lur mategarri ontan  
ederrez ondurik,  
giza almen jatorrak  
lurreko ondasunez  
dagoz zoraturik.

Ontasun oberako  
sortu da gizona  
beren almen eran,  
argi ta maitasuna  
dizdizera ederrez  
daroaz beregan.

Giza duintasuna  
lur danen goitik dago  
beren ederrean,  
gizonaren argiak  
atxurtuten dau lurra  
ongi-nai bidean.

Lurtar argalkeriak  
gizonaren bizia  
ezin dau asetu,  
Sortzetiko izatea  
elburu on bategaz  
bear da osotu.

## GURUTZAZ SALBATU DOZU MUNDUA

Eginkizun aundi bat  
agertu zan lurrean  
gizonen omenez,  
giza pekataria  
ondatuta egoan  
oben zoritxarrez.

Gizonaren bizia  
sorreran ondatu zan  
gaiztakeripean,  
gizon giza gaisoa  
larri, aurkituten zan  
ondamendipean.

Zeru goiko Jaungoiko  
berez errukitu zan  
gizon larriagaz,  
gizona zoritxarrez  
ezin eban ikusi  
samintasunagaz.

Erabagi sendoa  
gogoz artu eban  
gizonaren aldez,  
errukia nai eban  
gizona suspertzeko  
zoriontasunez.

Betiko ondatuta  
ezin eban ikusi  
gizonen bizia,  
erabagi sakona  
gogotik artu eban  
biziei begira.

Sortzezko izatea  
elburu on bategaz  
osatu bear zan,  
ta Jesus Jaun maiteak  
odola ixuriaz  
gogoz zaindu eban.

**KRISTO GURETZAT JAKINDURIA,  
ZUZENBIDE TA SANTUTZE EGIN DA**

Jesus gure Jaun maite  
zeru lurren Sorlea  
gure Jaun ta Jabe da  
beren Jakituriaz  
ta Ontasun guztiagaz  
sortu zan guztia.

Mendi bikaintasuna  
zerutik etorri zan  
orlegiz ondurik,  
jakintza ta ederra  
biak agertu ziran  
guztiz apaindurik.

Mendi, zelai ta ibai  
guztia bikain dago  
jakintzaz onduta,  
izarrak gau erdian  
dizdira ederretan  
danak urretuta

Izadiko jakintza  
Jainkoagandik dator  
dizdiz ederretan,  
usain gozozko lore  
ta edermen guztia  
larros orrietan.

Jesus Gure Jaunaren  
jakituri altsu  
izketan jarri da  
begi aurrez daukagun  
eder zoragarriak  
emon dau argia.

Gora goraka dago  
edertasun guztia  
lurraren gaiñean,  
deuntasun biurtu da  
Jesusen jokerea  
gizonen aurrean.

## JAUNA LAGUNTZAILLE

Gizon bat lagun barik  
erdi-illik aurkitzen da  
lurraren gainean,  
gizona aundi dalarik  
lanez goiturik dago  
bizitza aurrean.

Lurra eta zerua  
giza bizitza dira  
ondo alkaturik,  
bizi al izateko  
gogoz jokatu bear  
lurrean aurretik.

Lurra zeru aurre da  
sinismenez ondurik  
bizitza guztia,  
argibidezko lanak  
zuzendu bear dabe  
gizonen bizia.

Jakiturizko itzak  
ta egite zuzenak  
doazi zerura,  
zuzenbidezko itzak  
zoriondu bear dau  
gizonen bizia.

Giza laguntzaillea  
Jesus berbera da  
arloan aundietan,  
ori egi dalata  
giza seme zintzoa  
beti arduretan.

Gizona gora gora  
Jesusen billa doa  
ardura ederrez,  
Jesus Gaizkatzaillea  
gizoneri laguntzen  
goitar maitasunez.

## AINTZA JAUNARI

Aintza eta gorasun  
zor dautsaz Jainkoari  
gizonak lurrean,  
bere bereak gara  
sortzetik onakoan  
Jaunaren aurrean.

Euskalerrri maitea  
euzkoen jatorrizko  
erri berbera da.  
euskaldunen bizi-  
eder jantzirik dago  
euzko lurraldia.


Aintza eta gorasun  
bijoakizuz Jauna  
erri onetatik,  
zurea da izatez  
ta zurea bizitzaz  
sormen iturritik.

Euskalerrri maiteak  
zurtasun guztiagaz  
maite zaitu Jauna,  
izaterik onena  
sortzez ospaturik  
alkartasuna da.

Eskerrak Jainkoari  
biotz onenagaz  
damotzuz lurretik,  
Euskaldunen erria  
agurka dago beti  
bere lurraldetik.

Euskaldun lurraldea  
zelai orleiz ondua  
lengo aldietan,  
gaur lantegiz dago  
lan saria opaka  
gogo onenetan.





MUNGIA: TORREA TA ERREKA-MUNA

## ASKATUKO NAU

Egizalea dana  
miñak goratuko dau  
sormen ederrean,  
egi ta itz jatorra  
zoragarrienak dira  
gizonen artean.

Euzko aintzagarria  
egi eder-zale da  
sinismen bidean,  
giza zuzentasuna  
egitan deika dauka  
burudun artean.

Egi ta maitasuna  
onartzen dauz euzkoak  
gogorik onenaz.  
guzurraren etsai  
eguneko lanetan  
biotz guztiagaz.

Lana eta otoia  
euzko guraria da  
lur bedeinkatuan,  
mendi eta zelaiak  
gogoz entzuten daukaz  
zorion orduan.

Zuzentasun argia  
egitan bikaiña da  
egitez ondurik,  
gizon egi-zalea  
lora bikaiña da  
itzez argiturik.

Izkuntz zuzen baikorrak  
ta egite bidezkoak  
batera dabilnaz,  
gizonaren bizia  
sinismenak ontzen dau  
eite on ta itzaz

## ESKU ZABAL

Esku zabal ederra  
euskaldunarena da  
euzko zelaietan,  
lurrak on direlarik  
euzkoak bikainago  
ongille bidetan.

Urre gorri dario  
lurtar arazoetan  
euzko jatorrari,  
oroipen aintzatsuak  
beti eskeindu dautsoz  
anai maiteari.

Euzko jatortasuna  
buruz eta biotzez  
ederra da lurrez,  
bikaintasun lorea  
beraren berea dau  
ontasun ederrez.

Euzko seme argiak  
mundu zear dabiltzaz  
maitasun onenaz,  
zuzentasun bidea  
irakatsiz gizonei  
gogo guztiagaz.

Esku zabaltasuna  
ona egitea da  
erriaren aurrez,  
ta euskaldun gogoa  
bide ortatik doa  
zoramen ederrez.

Mundu biribil ontan  
ondo, ezagutu da  
euskaldun eskua,  
diruz eta egitez  
zuzenki agerturik  
euzkotar gogoa.

## BIOTZ BARRAIA

Lan onak egitea  
gauza bikaiña da  
gizonen bizian,  
gizontasun jatorra  
edertu egiten dau  
giza barrenian.

Eguneroko lanak  
erria goratzen dau  
bizia barriztuz,  
gauza bidezkoa da  
lanean jardutea  
bizia edertuz.

Lanaren ardureak  
bizia ondu dagi  
aurrerapidean,  
erriak gora doaz  
gizonen jakituriz  
lanaren bidean.

On egite zuzenak  
ondoren onak dakarz  
bizia ondurik,  
biotz bizi ederra  
gero ta bikaiñago  
urrezko jantzirik.

Zuzentasun bidean  
lanak edertuten dau  
gizonaren bizia,  
gora ta gora doa  
egite onen bidez  
euzkoen erria.

Jokabide argiak  
buru bidetik datoz  
biotzak ondurik,  
lan ederraren bidez  
biotza urretzen da  
maitez ederturik.

## ZATOZE NIREGANA TA NI JOANGO NAZ ZUZENGANA

Dei samur bat daukagu  
zerutik datorrena  
euskaldun izkuntzan,  
zatoze niregana  
euzko seme maiteak  
adorez bizitzan.

Maitasun guztiagaz  
deika daukagu Jesus  
euskaldun atetan,  
zer dozu euskalduna  
biotz maitekor ortan  
sormen argitan...

Bizitz eder bat dago  
euzkotar guztientzat  
zeru ederrean,  
euzko edertasuna  
estimagarria da  
bizitz onenean.

Bizitz ederragorik  
ez dago gizonentzat  
sorraldi guztian,  
ta bizitz ederrena  
eskeintzen deusku Jaunak  
zorion betian.

Atea zabal zabal  
aurkitzen da onentzat  
goiko Jauregian,  
poza eta bakea  
beti, opaka dagoz  
bizitz ederrian.

Zuekin egongo naz  
saria opaldurik  
bizitza zorian,  
Jesusen guraria  
giza zoriona da  
betiraun guztian.

## ANAITASUNA

Itz eder asko dira  
euskal mintzaira ontan  
jakiturizkoak,  
izkuntz zoragarriak  
edertza asko ditu  
beraren bereak.

Erri eder bat dago  
egizale ta zintzo  
bizien lurlean  
loraz beterik daukaz  
baratza ta zelaiak  
mendien aurrean.

Ederretan ederren  
gizadi zur bat dauka  
ontasun bikaiñez,  
egiak alkartzeitu  
euzko seme alabak  
buruz ta biotzez.

Erririk erri doa  
euskal bikaintasuna  
lagunak ondurik,  
egi ta maitasuna  
lagun onenak ditu  
bizitza sortzetik.

Zuzentasuna nai dau  
euskaldunen semeak  
bere lurraldean,  
on egiñaz batera  
bizia zainduagaz  
erri biotzean.

Inguru eder ontan  
lora eder bat dator  
bizitza erdian,  
anaitasun jatorrak  
bizia goratzen dau  
anaien artian.

## AINZA ETA OSPE JAUNGOIKOARI

Mundu onetan diran  
edertasun guztiak  
aintzagarri dira,  
maitasuna darie  
euren onginaiaz  
giza biotzera.

Gora goraka dagoz  
zeruetara adi  
eguzki argitan,  
gizonaren bizia  
indartzeko egiñak  
solo zabaletan.

Gizona adi dago  
egunsenti sorreran  
edertasunera,  
izadi aintzatsua  
goresgarria dago  
zerura begira.

Arto solo bikaiñez  
ta garitza ederrez  
apaindu da lurra,  
baratz zoragarria  
ortuariz ondurik  
luze zabalera.

Izadi eder oro  
zerura adi dago  
txit edermiñetan,  
zerua eta lurra  
alkar agurka dagoz  
oroimen onetan.

Gora Jaun Egillea  
guztien Jaungoikoa  
diño izadiak,  
abestu gogo onez  
Jaungoiko Altsuari  
argizko egiak.

## ITZUL ZAITEZTE EZ DOT NAI PEKATURIK

Liburu onenean  
agertzen dan egia  
daukagu aurrean,  
lurraren Jaube Onak  
bakea eta poza  
nai ditu lurrean.

Jainko Aita maiteak  
ontasuna gura dau  
gizonen artean,  
maitasuna ta poza  
bizitz on baten bidez  
lurraren aurrean.

Anaitasun zintzoa  
pozez ikusi nai dau  
alkar onarturik,  
egia ta laguntza  
omendu gura ditu  
pozak lagundurik.

Itzul zaiteze diño  
Jainko Guztiz Alsuak  
samin bidetik,  
poz ta anaiasuna  
ikusi gura ditu  
samiñak kendurik.

Anaitasun eder bat  
gura dau guztientzat  
lurraren gaiñean,  
maitasuna ta poza  
lorerik ederrenak  
nai ditu lurrean.

Txarkeri guztiak  
gizartetik kendurik  
betor maitasuna,  
alkartasun on baten  
bizitzea eginik  
anai on eara.





Gizaisoa  
izardira adi dago  
lora artean  
alaiturik.

## ZUZENDU ERRI TA AGINTARIAK

Egiz da aintzagarria  
Jauna gogoratzea  
gizonen biziaz,  
Jainko Guztiz Altsua  
lurrera adi dago  
maitasun guztiaz.

Jainkoak sorturiko  
gizadi omentsua  
gogor dabil lurrez,  
lurtar eder guztiak  
benentan maite ditu  
goitar eskar onez.

Gizonen elburua  
guztiz bikain dalarik  
lur eder onetan,  
gauza bidezkoa da  
egi ta zurtasuna  
errien bidetan.

Burua ta biotza  
almen bikaiñak dira  
giza eskuetan,  
biak eskean dabiltz  
edertasunen billa  
gizonen bidetan.

Buru goiko argiak  
zuzentasuna nai dau  
egiaz batean,  
biotzeko ontasunak  
ez dau nai txarkeririk  
giza bizitzean.

Erri ta agintaritza  
bizi bizi doazi  
bide orretatik,  
egiak eskatzen dau  
zuzentasun bidea  
euzko izatetik.

## ZUZENTASUNA

Egiz itz ederra da  
zuzentasun abotsa  
olerki buruan,  
euskaldun olerkiak  
ben-benetan maite dau  
bizitz inguruan.

Zuzentasuna dogu  
bizitzaren ardatza  
gure lan artean,  
gizon zuzena doa  
bizitzaren gidari  
lan ederrean.

Euskal bizitz indarrak  
gauz bi eskatzen ditu  
bizitza onetan,  
erri eder jator bat  
agintza bikaiñenaz  
bizitz omenetan.

Erri jatortasunak  
bizia goratzen dau  
munduaren aurrez,  
euzko seme argiak  
egi-zaleak dira  
itxasoz ta lurrez.

Zuzentasun egia  
euskaldun lorea da  
baratza erdian,  
guztiz usain ederra  
zabaltzen dau ludira  
maitasun artian.

Egite onak daukaz  
zuzentasun argiak  
euskaldun lurrean,  
txarkeri oro kendu  
maitasunez ondurik  
itza gizartean.

## ONERAKO JAIOAK GARA

*Ait Onak sortu eban  
argiz ta maitasunez  
ondurik bizia,  
argibide zuzenaz  
gizona ondu eban  
izaki maitia.*

*Asmorik bikaiñenaz  
sortu eban bizia  
senar-emaztetan,  
lurrean on egiñez  
alkarri lagunduaz  
zuzentza bidetan.*

*Elburu aundirako  
sortua da gizona  
biotz duin ederrez,  
ona ta maitasuna  
lortu bearrez dago  
beraren izatez.*

*Gizonan sorrerak  
biotz eder bat dauka  
bizitz aintzatsuan,  
maitasunak ontzen dau  
gizadiko bizia  
elkarte sutsuan.*

*Zorioneko itzak  
alkartzen dau bizia  
maitasun bidean,  
uxatu txarkeriak  
ta bizia edertu  
zuzentasunean.*

*Giza seme alabak  
onerakoak dira  
lur ibil-aldian,  
gero zorionagaz  
apaintzeko bizia  
betiraun guztian.*

## GORROTA TXARKERIA

Egizaleak diño  
utikan gizartetik  
txarkeri gaiztoa,  
egirako jaio da  
adimendun gizona  
goi argiz ondua.

Gaiztakeri zantarra  
gizonen etsaia da  
lurralde onetan,  
gizontasun zintzoa  
ezin dau gogoz aztu  
giza arazoetan.

Txarkeri gogaiztoak  
zapaldu egin nai dau  
ona dan guztia,  
izatez da okerra  
biotzez gogaiztoa  
baztertuz egia.

Munduaren etsai da  
egia zapaldurik  
onbide guztian,  
gizonen zurtasunak  
ez dau nai txarkeririk  
bizien lurrian.

Mundu egizalean  
gora gora bijoa  
itza gizartean,  
onaren indar zintzoz  
argitu daiten lurra  
zuzentza bidean.

Okerkeri guztiak  
bijoaz lur ontatik  
bultz gogor artean,  
ta betor maitasuna  
bizitzea poztuten  
gizonen aurrean.

## ZURE BIZI GARA

Jainko Guztiz Altsuak  
elburu aundiagaz  
sortu eban lurra,  
t egite aundi onek  
argia bear eban  
gizonen erara.

Zugadi ta loradi  
eder dario lurrak  
alde danetatik,  
gizonaren bizia  
goratu nai dau lurrak  
beraren sortzetik.

Almen da ondasunak  
itxi zituan Jaunak  
giza eskuetan,  
ta lurra ta itxasoa  
onez beterik dagoz  
otseintza bidetan.

Jaungoiko maitasuna  
gizadira adi dago  
ontasun guztiagaz,  
bere maiteak ditu  
adimendun jatorrak  
biotz onenegaz.

Mendi zoragarriak  
biziz ondurik dagoz  
ontasun onean,  
guztia notiñentzat  
sorturik gelditu zan  
maitasun bidean.

Gizadi argidunak  
gogoz, osotuten dau  
Jaungoiko erria,  
egiz esan dagigun  
zureak gara sortzez  
euskaldun bizia.

## JAUNA BILLATU

*Bizitz eder bat dago  
ontasunez betea  
betiraun guztian,  
aintza eta gorasun  
ditu ezaugarriak  
zorion betian.*

*Mendi eta zelaiak  
orlegiz jantzi dira  
ederrez ondurik,  
euren tartian dagoz  
euskal erri bikaiñak  
ederrez pizturik.*

*Euzko seme jatorra  
gogoz dabil lurrean  
lanaren bidetan,  
burua ta biotza  
or, ezarrita daukaz  
gogo onenetan.*

*Gogorik onenagaz  
ongi alkartzen ditu  
lurra ta zerua,  
aintza eta gorasun  
dirautso biotz guztiz  
zuri nere Jauna.*

*Zelai eta mendiak  
beti, izketan dagoz  
edertasun bidez,  
gora lurren Sorlea  
jakituriz ondua  
biziaren alde.*

*Giza bizitz guztiak  
oroz goitik lagunduz  
Jaungoiko almenak,  
gora Jaun Egillea  
gogorik onenagaz  
diño euskaldunak.*



Baserritarrak gara gu  
ezin giñaike ukatu  
baiña salmenta  
ederrak daukaguz  
erosle bikaiñentzat.



## ERESI JAINKOARI

Bizia artzen gagoz  
gaurik bikaiñenean  
izar zoragarritz,  
zeru goitar urdiña  
bizi bizirik dago  
edertasun guriz.

Euskaldun olerkia  
zerura adi dago  
poz aundienetan,  
Jauna goratu nai dau  
albiste onenekin  
edertasunetan.

Izkuntz aintzagarría  
lur on baten sortu zan  
orlegi artean,  
beraren goitásunez  
abesti bikaiñenak  
eralkiz lurrean.

Jauna begira dago  
lurralde onetara  
goiz egunsentian,  
ta euskaldun jatorrak  
abestiak onduten  
edertasunian.

Birau bako izkuntza  
dago Euskalerrian  
zoriontasunez,  
izkuntza eder ontan  
jakintza agertzen da  
egintza bikaiñez.

Eresi bikaiñenak  
dirautsoez Euzkoak  
Jainko Altsuari,  
maitasun onenagaz  
eresiak azalduz  
Jaungoiko Jaunari.

## ARIZTI

Arizti orlegia  
dizdizera ederrez  
mendi goian dago,  
ederra ta bitxia  
darioz orrietan  
guztia urrezko

Gozian goizti dabiltz  
txori eder-zaleak  
mendi goi aldean,  
eguzkiz zoratuta  
adi adi dabiltzaz  
ibil liraiñetan.

Mutil gaztea doa  
pozez zorabiotan  
mendi gain artara,  
guztia eder dakus  
mendi eta zelaiak  
begi argitara.

Mutillaren biotza  
doiñuzko belarriaz  
bat ein da berian,  
txoriak abestuten  
ta mutilla entzuten  
zeru zirudian.

Mendi edertasuna  
zorabioz egoan  
bikaintasunean,  
gizadi maitetsua  
berari, gogoz, adi  
almen onenean.

Mendia ta erria  
biak bat egin ziran  
Maxaren aurrean,  
arizti aintzatsua  
gogo bizitan dago  
eskar onenean.

## JAUNA ENTZUN GAGIZUZ

Laiñoz inguraturik  
aurkitzen da bizia  
erbeste onetan,  
zeruaz bardindurik  
illuntzia dirudi  
biziak lurretan.

Gizona ez da sortu  
lurrerako elburuz  
bizitza bidean,  
Jainko maitagarriak  
beregana eltzeko  
jarri zun lurrean.

Gizonaren bizia  
argi bearrez dago  
lurrak agindurik,  
zerutar goi argia  
askoz bikaiñago da  
egiaz ondurik.

Aldatz aundia dago  
lurretik zerurako  
ibili aldian,  
lurra eder dalarik  
zerua bardingean da  
edertaunian.

Lurtar seme bikaiñak  
argi bi bear ditu  
bizitz inguruan,  
urrezko eguzkia  
bear bearreko dau  
bizitza onduan.

Ta guk laguntza bear  
aldatz ortatik zear  
zerura bidean,  
Jauna, erruki gugaz  
alkar ikus gaitezan  
zeru ederrean.

## DOATSU JAUNAREN BELDUR DANA

Zuzentasun zaleak  
mundu zear dabiltzaz  
Jaunaren aurrean,  
egia izan ere  
gauza ongarria da  
giza biotzetan.

Egiak ontzen ditu  
gizonaren bideak  
lur aldi onetan,  
egiak argitzen dau  
gizonaren burua  
esturaldietan.

Zuzentasun bidea  
lurreko bizitz ontan  
maitegarria da,  
gizon bizitz zuzenak  
bakezko poza dakar  
giza bizitzara.

Gizon zoriontsua  
on billa dabillena  
bizitza onetan,  
bizitza on zaleak  
jarriko dau betiko  
bakezko bidetan.

Egitan zoriontsu  
Jaunaren bildur dana  
bizitza maitian,  
bakea eta poza  
bereganduko ditu  
zerutar bizian.

Benetako bildurrak  
zuzentzen dau gizona  
salbamen bidean,  
zuzentza ardureak  
ontzen dauz egiteak  
bildurrarenpean.

## BIOTZ ONA

Urrezko bola bat dau  
gizonak bere baitan  
bular magalean,  
ondo gorderik dago  
jakituri guztiaz  
bizien aurrean.

Euzkoa biotzdun da  
erri ta urietan  
ludiarren aurrez,  
euzko seme jatorrak  
maitasuna dario  
zoriontasunez.

Euskaldun ainzatsua  
onartua izan da  
mundu zabalean,  
aintza eta gorasun  
euskaldun argiari  
duintasunean.

Euzko biotz zuzenak  
maitasuna dario  
gizonen aurrean,  
ez dau nai zapaltzerik,  
olan onartua da  
lurtarren artean.

Euzko seme jatorra,  
emon da zabal zazu  
munduan frutua,  
anaitasunerako  
egin zinduzan Jaunak  
ederrez ondua.

Ederrik bear ba da  
biotza da urrea  
ontasun garbian,  
gizon egizaleak  
biotzez egiten ditu  
gauz onak lurrian.

## ADIMEN ARGIA

Giza seme kutunak  
maitasun guztiagaz  
atundu zituan,  
bitxirik ederrenak  
emonda gizonari  
argizko buruan.

Izar eder bi dagoz  
gizonaren bizitzan  
goi argiz onduta,  
eguzki urrezkoa  
ta buru adimena  
argiz osotuta.

Zeru alde urdiñak  
ametsezko dirudi  
edertasunean,  
urdin garbi garbia  
egiz da zoragarri  
ikusmen aurrean.

Gizon egizaleak  
biotzez egiten ditu  
gauz onak lurrian,  
millinoiak izarrak  
argi dizdizetan dagoz  
edertasunian.

Biotza ta burua  
aintzagarriak dira  
gizonatasunian,  
almen eder bi onek  
goratu dabe lurra  
bikaintasunian.

Zu, adimen bikaiña  
ederrez bikain zara  
jakiturietan,  
zure almen bikaiñez  
mundua goratu da  
aurrerapidetan.

## JESUS EROSLE

Gizadi samindua  
larri larri, egoan  
beraren bizian,  
txarkeriz zapalduta  
eukan bere gogoa  
guzurren azpian.

Beraren itzalpetik  
urten ezin gaisoak  
ta gaizki egoan,  
indarrrik iñola ez  
ta gaizki aurkitzen zan  
zoritxar ondoan.

Lurraldean ez eukan  
bear eban aiñeko  
laguntzaille duiñik,  
negarra ta samina  
agertuten jakozan  
alde danetatik.

Gizadi min samiña  
zeruraiño eltzen zan  
oiu larrietan,  
ta zerua begira  
bere lurtar kutunei  
ardura bizitan.

Lurrean ez egoan  
gizadi samindua  
askatutekorik,  
eta Jaungoiko Aitak  
Semea bialtzen dau  
zeru gorengotik.

Jesus benetan dator  
zeru-goitik lurrera  
esana eitera,  
ta Kurutzan billotsik  
odol ustu egin zan  
ezpata erara.

## ZORIONTASUNAK

*Diruzalekeria  
bertan bera itxirik  
gogoz bizi dana,  
zorionekoa da  
zeruko erreñua  
irabazi dau ta.*

*Arrokeriak itxi  
ta apaltasunean  
bizi direanak,  
egiz zoriontsuak  
sasoiz irabazirik  
gizonen biotzak.*

*Zuzentasun bidean  
aurrean erabiliz  
negar dagienak,  
zorioneko dira  
zeru goi ederrean  
poztuko dauz Jaunak.*

*Zorioneko dira  
zuzentasun zaleak  
mundu onetan,  
asetu egingo dauz  
egiairen Jaubeak  
zeru ederretan,*

*Zorioneko dira  
gizon errukitsuak  
anaien artean,  
betirauneko poza  
egiz lortuko dabe  
zeru ederrean.*

*Zorioneko dira  
biotz garbi zaleak  
bizitza onetan,  
Jaungoiko Almentsua  
ikusiko dabe-ta  
zeruko aintzatan.*



## GATZ ETA ARGI

Janari onbidetan  
gatzak darabil beti  
sukaldari piñak,  
gatzak gozatuten dauz  
gizonen giro jator  
eta bazkariak.

Ogia gatzik barik  
geza geratuten da  
bazkari orduan,  
urdaillak ezin artu  
gatzik bako ogia  
beraren barruan.

Gatzezko janaria  
gogoz onartuten dau  
bizien urdaillak,  
atsegingarri dira  
gatzagaz onduriko  
janari bikaiñak.

Munduaren argia  
anka biren gaiñean  
gogoz dabil lurrez,  
egi zabaltzen dabil  
gizona poztuteko  
zoriontasunez.

Lege ta Igarleak  
jarraitu bear dabe  
bizien artean,  
argia eta poza  
bear ditu lurtarrak  
beren bizitzean.

Egiaren argia  
zabaltzen dabillena  
zorioneko da,  
egiaz argiturik  
gora goraka doa  
Zeru Aberrira.

## ODOL-JARIODUNA OSATU

Zerutar izkuntzetan  
izketan ebillela  
jatorko gizona,  
gizon aundikia zan  
ardura txit larriak  
loturik biotza.

Jesusen almenetan  
gogoz eukan biotza  
egiaz ondurik,  
barneko samiña  
karraziz deika eukan  
biotza auldurik.

Alaba ona il jat,  
au da biotz dardara  
samin gorrietan,  
nire maitasun dana  
beragaz daroakit  
negar samiñetan,

Baiña gogo guztiaz  
Jesuseri dirautso  
uste onenean,  
zure esku santua  
ezarri egiozu  
bizitza eskean.

Amaren guraria  
egiz, bidezkoa zan  
alabaren aldez,  
bizitza gura eban  
gogorik onenagaz  
zoriontasunez.

Alabarik onena  
itxaropen guztiaz  
itxaroten egoan,  
bizi ta osasuna  
biak deika egozan  
amaren gogoan.

## AURREAN ERABILIKO DITUE

Jesus arduraz dabil  
bere jarraitzaileekaz  
bizitza onetan,  
zaindu zuen biziak  
etsai maltzurretatik  
egizko bidetan.

Auzi ebazleenpean  
itzi naiko zaitue  
txarkeri guztiaz,  
euren sinagogetan  
zigorrez salaturik  
gogo gaiztoenaz.

Asarrez etorkeran  
salakuntza ustelez  
ez luzatu itzik,  
esan bear dan dana  
une aretan bertan  
egiz onarturik.

Arazo aundi artan  
itz egiten dabenak  
zuek ez zarie  
Jaungoiko jakituriak  
egiz baztertuko dau  
aren jakituria.

Anai batek bestea  
eriotz samiñera  
gogoz zalaturik,  
aita batek semea  
eriotz minduko dau  
ekaitza sorturik.

Erri baten aurrean  
miñez erabilkeran  
igesi bestera,  
Isrraelgo erriak  
ez dira amaituko  
ibilte ortara.

## JESUS ETA BEELTZEBUL

Itsu eta mutua  
era batera dana  
dakartse aurrera,  
gogorik onenagaz  
osatu egin eban  
maitasun erara.

Lagun talde aundiak  
arrituta iñoan  
gogo guztiagaz,  
gizon au ez ete da  
Dabik errege semea  
odol bardiñagaz.

Jesusen erantzuna  
guztiz argia zan  
gizonen aurrean,  
norbere buruaren  
aurrez aur dabillena  
jausi da lurrean.

Satanasek Satanas  
bota ba-dai etxetik  
zoritxar indarrez,  
zelan iraun legike  
aren erreñu latzak  
izpi zoritxarrez.

Baiña nik diabruak  
Jaunaren Espirituz  
botaten ba dodaz,  
egitan, argi dago  
Jaunaren Erreñua  
or dagola itzaz.

Nire alde ez dagona  
neronen aurka dago  
giza zoritxarrez,  
eta nigaz batera  
batuten ez dabentak  
sumiña dau berez.

## JESUS UR GAIÑEAN

Itxas urdin zabala  
amesgarria egoan  
izarretara adi,  
zeru goitik jatsi zan  
eder bikaintasuna  
agurka urari.

Argi agertuten da  
nor izan leitekean  
Egille Altsua,  
gizaki danen artean  
Jaungoiko bera dago  
almenez ondua.

Zoaze askar askar  
itxas beste aldera  
gogo onenean,  
itxas eder onetan  
gozartu egizue  
bikaintasunean.

Mendira doa Jesus  
bakardade santuan  
otoitz egitera,  
illun nabarrez Jesus  
bakar bakar egoan  
zerura begira.

Laugarren gau aldean  
Apostoluengana  
dator Jesus oiñez,  
ikasleak begira  
arritu egin ziran  
Jesusen ibiltzez.

Mamua da iñoen  
ur urdin gaiñean  
oiñez ikusirik,  
Jesusek bereala  
poztu zituan esanez  
ez izan bildurrik.

## SALTZAILLEAK

Jesus eleizan sartu  
ta giza langilleak  
aurkitu zituan,  
bizitza erosketak  
egiten ziarduen  
euren autuetan.

Ez eutsan on eritzi  
jokabide areri  
toki Santu artan,  
erosten ebiltzenak  
kanpora bialdurik  
ordu samiñetan.

Idatzirik dago,  
nire etxe santua  
otoi etxea da,  
beraren elburua  
otseintza biurturik  
sinismen erara.

Zuek lapurren zulo  
biurtu nai dozue  
asmo biurretan,  
egiz ez da zillegi  
tokirik santuena  
aldatzea ortan.

Abade buruak eta  
idazlari azkarrak  
asarre egozan,  
euren asmo ankerrak  
ondatzen ikusirik  
illun abarretan.

Entzuten al dozue  
orrek diñoen itza  
erriaren aurrez...  
bai, umeengandik dator  
egiaren abotza  
zoriontasunez.

## ILDAKOEN BIZTUERA

Biztueraren aurka  
gogozko ziarduten  
saduzeotarrak,  
euren asmo gaiztoaz  
Jesusegana datoz  
guztiz arrotuak.

Irakasle, dirautse  
Jesus Jaun maiteari  
ardura bizi-az,  
Moisesek esana da  
erritar onerako  
gogorik onenaz.

Semerik izan barik  
iñor ilgo ba-litza  
negar samiñetan,  
anaiak artuko dau  
beraren emaztetzat  
zorion bidetan.

Zazpi anai artetik  
lenen senarra il zan  
semerik bagarik,  
bere anai maitea  
andreari itzirik  
emazte biurturik.

Beste guztiekin be  
bardin jazo izan zan  
zoritxar aundian,  
ta guztien ondoren  
emaztea bera il zan  
samintasunpian.

Barrero biztukeran  
nor izango dau gizon  
bizitza barrian...  
Danak izango dira  
aingeruen antzeko  
betiko zorian...

## JESUSEN ERIOTZA

Seiretak asita  
argia aldendu zan  
eguna gauturik,  
guztia larritu zan  
gau saimintasunpian  
eguna auldurik.

Beste batek oster  
geldi egon zaiteze  
ordu larri ontan,  
ia iñor ba-dator  
zoritxar ontatik  
kentzeko asmotan.

Ta bederatzigarren  
ordu inguruetan  
berba au entzun zan,  
Ene Jainko maitea,  
zergaitik itzi nozu  
bakardade ontan...

Ordu artan Jesusek  
ikaragarritzko min  
itzalen artean,  
deadar bat eginik  
arnasa emon eban  
gizonen aurrean.

Ordu aretan bertan  
areitariko batek  
belakia arturik,  
ozpiñetan buzti ta  
zurrut emon nai eutzan  
oldarrez beterik.

Bereala orduan  
miñezko samindurik  
gaisorik larria,  
etxe-oial nausia  
erdibitu egin zan  
ikaraz betia.



## JESUS PILATOREN AURREAN

Lendakari aurrean  
beraren borondatez  
Jesus aurkeztu zan,  
galdera au egin eutsan...  
Judarren Errege zara...  
Bai, diñozun eran.

Gero abadeburu  
eta batzarrekoak  
salatuten eben,  
baiña aren aurrean  
ixil egoan Jesus  
miñak eroaten.

Pazko Jai bakotxean  
giltzape egoan bat  
askatzea oi zan,  
nor askatuko dogu  
Barrabas ala Jesus  
galdera izan zan.

Une aretan bertan,  
andreak bial eutson  
albiste bizia,  
geldi gizon zuzenaz...  
gaur gabeen artu dot  
ametsa gorria.

Lege batzarrekoak  
erria astintzen eben  
Jesusen aurrean,  
Barrabas askatzeko  
ta Jesus erailteko  
Gurutza gaiñean.

Gizon zuzen onengan  
ez dot gaitzik aurkitzen  
Pilatok iñoan,  
ta an egoan jendeak,  
Gurutza gaiñera ori  
odol erioan...

## JESUSEN ERIOTZA

Seiretatik asita  
bederatziak arte  
eguna gautu zan,  
zergaitik itzi nozu  
bertan bera minduta  
estura onetan.

Eta beiñolakoan  
aretariko batek  
belakia arturik,  
ozpiñetan busti ta  
emotea nai eban  
indarrak bizturik.

Beste laguntaldeak  
ez egozan ortara  
ekintza orretan,  
geldi, iñor ba-dator  
laguntza eskeintzen  
samin gogorretan.

Dana egoan dardar  
ikara baltzenetan  
zeruaren aurrez,  
Jesusek oiu egin  
ta arnasa emon eban  
dardarazko miñez.

Ta Jaunaren etxeko  
oial eder zabala  
zati bi ein zan,  
lur larria dardaraz  
ta arriak brintzatzuz  
illak biztu ziran.

Jesus piztu zanean  
illobitik urtenda  
agertuten ziran,  
gogorik onenagaz  
autortuten eben... au...  
Jaungoiko Seme zan.

## JESUS KAFARNAUNEN

Gauza arrigarriak  
egiten dabil Jesus  
lurralde maitian,  
oraingoan Kafarnaun,  
gogoz, aukeratu dau  
mundu zabalian.

Jesus beren taldeaz  
Kafarnaunera doa  
argi egitera,  
mundu gizajo onek  
egia bear dau-ta  
argi dizdizera.

Larunbata eltzean  
sinagogan sartu zan  
gogorik onenaz,  
egun zoragarria  
Kafarnauntarrentzat  
zerutar argiaz.

Aren irakatsiaz  
arrituta egozan  
entzule guztiak,  
jakituri onenaz  
emoten bai-ebazan  
jakintza nausiak.

Batzar dirdaitsu arek  
diabruak artuta  
gizontxo bat eukan,  
Jesuseri dirautso  
ausartasun guztiaz  
ba-dakit nor zaran.

Itzi orri bakean  
ta al bait ariñen  
emendik utikan,  
ta espiritu loa  
gizona astinduta  
igesi joan zan.

## ELBARRIDUNA

Andik egunetara  
Jesus, barriro, doa  
Kafarnauenera  
ta jazoera ori  
lasterki zabaldu zan  
jendeen artean.

Etxe alde guztia  
lagunez betetu zan  
dardara bizitan,  
ez egoan atea  
zabaltzeko erarik  
estura larritan.

Ez zaitez ikaratu  
jazoten dan onegaz  
Kafarnaun aldean,  
Jesus dago barruan  
gizadia argitzen  
aukera onian.

Lau gizon sendo datoz  
elbarridun areri  
lagundu nairik,  
lauren arte dakarre  
anai zintzo mindua  
zeruak ondurik.

Teillatua zulotuz  
sartzen dabe gaisoa  
Jesuserengana,  
jendez beterik egon  
etxe zabal guztia  
Jesusi begira.

Jesus arritu ein zan  
aren sinismenagaz  
bizien artean,  
pekatuak parkatuz  
osasuna damotzut  
bizien lurrean.

## URDIN URDIN

Itsas ertzean dago  
urdiñetara adi  
Jesus Jaun Altsua,  
zoragarria dakus  
aintzaz beterik dagon  
itsas dirdaitsua.

Egiz arduraz dator  
Sinagotar don Jario  
asmo bizietan,  
Jesus ikusikeran  
belaunbiko jarten da  
Jaunaren oiñetan.

Alaba txit maitea  
azken aldi oetan  
il zorian dago,  
ez dago osagillerik  
osatzeko gai danik  
beraren gaitz aro.

Amabi urte estutan  
gaizki aurkituten da  
odolen jarioz,  
osasuna galduta  
gero ta larriago  
bizitza zuzpiroz.

Jesus ezaguturik  
berekautan iñoan  
gogorik onenaz,  
jantzien ikutzea  
naiko dot osatzeko  
eskerrik onenaz.

Ikutuaz batera  
odol-jario miña  
estaldu egin zan,  
ta bere gaitz guztiak  
urrindu ein zirela,  
pozez, artu eban.

## ESKU IGARRA

Larunbat ederrean  
sinagogan sartu zan  
Jesus Jaun maitea,  
lagun asko egoan  
gogo onez itxaroten  
egizko bidea.

Etxe ortan sarturik,  
irakasten asi zan  
jakintza nausia,  
ta pariseotarrak  
maltzurkeri guztiaz  
adi aditzera.

Idazlari ta aideak,  
zur zur, egozan bertan  
utsak ikusi nairik,  
larunbata zan legez  
osatuten ba eban  
gaiso gizajorik.

Jesus bizitz jaubeak  
gaisoari dirautso  
jarri, or, erdian,  
gaisoa bereala  
danen aurrean zutik  
pozez geratu zan.

Jesusek jakituriz  
gizon danei dirautse  
unetxo aretan,  
txar ordez on eitea  
egokia ete da  
zapatu jaietan...

Zabaldu esku ori...  
ta eskua zabalduz  
osatu egin zan,  
batzuk asarre ziran  
beste batzuk poz pozik  
geratu bai ziran...

## ARERIOAK MAITATU

Jaunak emon dauskuz  
irakatsi bikaiñiak  
bizitza aurrean,  
ez dau nai gu galtzerik  
zori gaiztoen bidez  
bizitza ondoren.

Zoritxar asko dagoz  
giza semien aurka  
bizitza onetan,  
guztien aurrez aurre  
bide ona agertu dau  
Jaunak zentzunetan.

Etsaiak maite egizuz  
ta gorrotalariei  
on egin bizian,  
bizitzaren poza  
berez etorriko da  
alkartasunian.

Matrailla alde baten  
joten zaituenari  
aurkeztu bestea,  
irakatsi onena  
emongo bai dautsazu  
gauz ori eginda.

Maitatu egizuez  
zuen arerioak  
biotz garbiagaz,  
au da egi bidea  
zerua lortuteko  
uste onenagaz.

Errukiorkak izan  
errukia lortzeko  
bizitz egokian,  
parkatu gizonari  
errukia lortzeko  
zorion bidian.

## JESUSEN LARRIALDIA

Gauza arrigarriak  
egi egitan dira  
txit zoragarriak,  
Jesus eta lagunak  
mundua argitzen dabiltz  
jaun agurgarriak.

Egun argi batean  
Jetsemanire doaz  
asmorik onenaz  
otoitz eitera noa,  
zuek, emen, gelditu  
maitasun guztiaz.

Jesus mintzen asi zan  
eta era berean  
itzalez larritzen,  
laster il bearra dot  
samiñak diraustenez  
gizonak salbatzen.

Aurrerago joan ta otoi  
egiten asi zan  
era mingarrian,  
ene Aita on ona  
urrindu neke min au  
bizitza maitian.

Baiña ez bedi jazo  
ordu larri onetan  
nire naietara,  
Zeuk gura dozun legez  
izan dedilla beti  
gurari altsura.

Mundua, larri, dago  
ibilbide miñetan  
gogoa sarturik,  
itsumustu ortatik  
atera gizadia  
buruz argiturik.



## MIRARIAK

Gauza arrigarriak  
esaten diarduela  
gizonen aurrean,  
aundiki bat eldu zan  
bere naiak agertuz  
giza onbidean.

Ointxe il jat alaba...  
samintasun aundia  
daukat biotzean,  
Jesus, zatoz etxera  
ta ezarri eskua  
bere gorputzean.

Ta zuk ori eginik  
bizia lortuko dau  
une artan bertan,  
Jesusek gogo onez  
lagundu egin eutsan  
eskari bidetan.

Amabi urte luzez  
gaiso egon andrea  
odol jariotan,  
arduraz etorri zan  
Jesusen ingurura  
asmo bikaiñetan.

Osasuna nai eban  
neke-miñak itzirik  
bizitz eder ontan,  
ikutzea naiko dot  
osasuna lortzeko  
Jaunaren bidetan.

Atzerantz begiratur  
Jesusek esan eutsan  
maitasun guztiaz,  
zeure sinismen onak  
egiz osatu zaitu  
gogorik onenaz.

## JESUN JARRAILEAK

Une bedeinkatu baten  
galdera au egin eutsen  
Jesusi ikasleak,  
nor da nagusiena  
eta noren alde dagoz  
zeruko atearak.

Onako umetxo bat  
gogoz artzen dauanak  
nire izenean,  
egoki neu artzen nau  
pozik aundienagaz  
zorion bidean.

Ume bateri deitu  
eta danen erdian  
gogoz, jarri eban,  
ume onen antzeko  
izan nai ez dauana  
ez da artzen zeruan.

Sinistedun txikia  
txarrera daroana  
zori-gaiztoko da,  
oba izango leuke  
bizitza txargillea  
itsasora bota.

Ume onen antzera  
bere gurari onez  
txiki eiten dana,  
Zeruko Erreiñuan  
zorionez beterik  
ori da aundiena.

Gizona ez da sortu  
gaiztakerietako  
lur bedeinkatuan,  
on ta zuzentasuna  
eskatzen dauz egiak  
gizonen buruan.

## AZKEN AUZIA

Jesus Jainko maitea  
aintzaz datorrenean  
mundu epaitzera,  
Errege Jarlekuan  
izango dau egitan  
beraren tokia.

Gora goraka dator  
erregeren abotsa  
onulari legez,  
guztiak arrituta  
itxaroten egozan  
zoriontasunez.

Jesusen aurraldean  
banatuko ditue  
ardi ta akerrak,  
ardiak eskumatik  
ta akerrak eskerretik  
biak banatuak.

Eskuma aldekoiei  
gogo onez dirautse  
Errege nausiak,  
onartu egizuez  
sortzez jatortzuezan  
erreñu bidiak.

Izkuntza dotore bat  
sortuko da orduan  
gizonen artean,  
danak pozten dituan  
esaera ederra  
eskar onenean.

Goserik egon nintzan  
ta jaten emon zeunsten  
estura aldian,  
egarri izan nintzan  
ta edaten emon zeunsten  
sasoi onenian.

## GAUZ ARRIGARRIAK

Jesus eta lagunak  
itsasoa itzirik,  
lurreratukera,  
txalupatik urtenda  
aurrez agertu jakoen  
gizona eskean,

Jesuseri dirautso...  
zer daukazu zuk nitzaz  
Jaungoiko Semea,  
Aitaren izenean  
ez nagizu samindu  
ikaraz betea

Giza seme larria  
diabruak edukan  
beren naitara,  
burdiñazko kateiak  
ausi eiten ebazan  
txerrenen gisara.

Espiritu baltz ori,  
urten egizu ortik  
bakean itxirik,  
zelan dozu izena  
esan eutsan Jesusek  
arduraz ondurik.

Iñork ezin eikean  
jokera a zuzendu  
gizonen artean,  
burdin baltzak eusteko  
indarra eukan berak  
biotz barrenean.

Taldea da izena,  
asko gara lurrean  
arazo aunditan,  
lurralde onetatik  
ez gagizuz urrindu  
ordu minberetan.



## KALKUTA'KO TERESA ZORIONDUNA

Zerura begira dago  
done izan aurrean  
langille zintzo izana  
Afrikako lurraldean.

## OTOITZA

Egitada aundia  
sortzen da zorionez  
gizon biotzean,  
ederrik bear ba da  
otoia bikaiña da  
gizonen miñean.

Seme leialtasuna  
agertzen dau otoiak  
itz deuna egiñez,  
Jainkoarenak gara  
eta bidezkoa da  
itza zorionez.

Zer sinistu bear dan  
Jesusek esan eban  
otoi ederrean,  
deundua izan bedi  
zure izen ederra  
zeru ta lurrean.

Emoiguzu Jaun Ona  
eguneko ogia  
obenak parkatuz,  
Jaungoiko maitasuna  
ongi agertuten da  
guri begiratuz.

Giza gaiso argaloi  
parkatu egiguzu  
Jaun agurgarria,  
zure bide santuan  
ibili al gaitezan  
ondurik bizia.

Lagundu egiguzu  
gure Egille Altsua  
bizitz eder ontan,  
egiz, zureak gara  
Jainko itza gurturik  
itz ederrenetan.

## BIZIA

Biziaren jaubea  
Jaungoiko Altsua da  
zeru ta lurretan,  
berak bakar bakarrik  
sortu al dau bizia  
gizonen bidetan.

Gizonaren bizia  
jakintz aundikoa da  
beren almentan,  
gizon almenen goitik  
dauka bere sorrera  
jakintza bidetan.

Gizonen adimena  
zerutar jakituriz  
sortu lei bakarrik,  
gizonaren almenak  
txiki geratzen dira  
burura aditurik.

Gizonaren bizia  
egiz da maitegarri  
edertasunian,  
ez dauka antzekorik  
jakituriaz ondurik  
lurtarren artian.

Buruz eta biotzez  
zerutarra dirudi  
bikaintasunean,  
argi ta maitasuna  
almen goitarrak dira  
zuzentasunean.

Lurreko arazoan  
zuzendari bikaiñak  
daukaz bere etxean,  
argi ta maitasuna  
bear dauz gizarteak  
salbamen bidean.

## SINISTEDUNA

Bikaiñetan bikain da  
sinesdun gizona  
lurraren mugetan,  
oroz goitik maite dau  
Jaungoiko Egillea  
bizitz arduretan.

Zelai bikaintasuna  
ederretan eder da  
beren izatean,  
loreak apaintzen dau  
lurren illuntasuna  
eguzki artean.

Ez arduraz ibili  
zer jango ete dozun  
goiz ta arrasberan,  
Janko errukitsua  
semeen arduraz dago  
bizitza onberan.

Salomon ospetsua  
beren bizitz aundian  
ez zan ain bikaiña,  
lora zuri-gorriak  
usain gozo daroe  
lurretik zerura.

Zeruko egaztiak  
ez dabe lanik eiten  
bizitza aurrean,  
zelaiak loraz dagoz  
janaria opaka  
bizitz omenean.

Ez larritu samiñez  
zer jango ete dozun  
bizitz ederrean,  
Jaungoikoak bā-daki  
bere semien barri  
esturen aurrean.



## OTOIA

Irakatsi ederrak  
Jesusek zabaldu dauz  
gizonen artian,  
jakituri obarik  
ezin emon gizonak  
lurtarren aurrean.

Oroz goitikan dago  
Jesusen itz jatorra  
maitasun guztiaz,  
jakituri bikaiña  
zabaldu eban lurrez  
jakintza argiaz.

Eskatu egizue  
ta emongo jatzue  
bear dozuena  
zerua adi dago  
maitasun guztiagaz  
lurtarren artera,

Billatu egizue  
lur maitagarri ontan  
ona ederretan,  
zerua gertu dago  
gizonei laguntzeko  
gurari onetan.

On billa dabillanak  
aurkitu egiten dau  
bere eskaria,  
biotz onekoari  
ogia eskaturik  
nork emon arria.

Lurtar giza semea  
olakoa izanik  
semien aurrian,  
Aita Jaungoikoak  
zer ez dau egingo  
zintzoen aurrian.

## JAINKOAREN ITZA

Mundu itzal onetan  
era-askotarik dagoz  
agindu naikoak,  
txerren eta lagunak  
asko dira munduan  
gizonen etsaiak.

Euren egiñetatik  
ezagutuko dozu  
diabru jokera,  
miesa ta ezitia  
eskeintzen dauz lenengo  
irabaz bidea.

Aintxiñetik dabiltzaz  
burruka itzalpean  
nausi izan nairik,  
euren bizitz joria  
burrukea da lurrez  
gizona goiturik.

Edozein arbol onek  
frutu onak dakarzuki  
beraren izatez,  
sagarrondo zintzoak  
sagar garauak dakarz  
ederren ederrez.

Azalez eder datoz  
ardizko narruagaz  
soña estaldurik,  
baiña barru-barrutik  
otso lapurrak dira  
guzurrez beterik.

Diabru gogaiztoak  
eskeintza polit ordez  
sua dakar maira,  
modako kolorea  
egon daiten gorputzez  
goizetik gabera.

## AINTZA KRISTORI

Egiz arrigarria  
Jesus bialdutea  
gizonen artera,  
lurra, larri, egoan  
lurtar giza semeak  
guztiz saminduta.

Zerutik begiratzuz  
lauki samiñagorik  
ez egon lurrean,  
Txerren bere bidetan  
arrotuta ebillan  
gizonen aurrean,

Txerren gogoz ebillan  
bere asmo gaiztoz  
giza biotzetan,  
pozik ikusten zitun  
gizon atzipetuak  
ederkerietan,

Jesus, gogoz, egoan  
zeru goitik begira  
Jainkozko argiaz,  
laguntza emon nairik  
gizonezko jantzi zan  
maitasun guztiaz.

Kurutzeko odolaz  
zabalduko zituan  
zeruko ateak,  
ta Txerren makaldu zan  
Jesusek zabaldurik  
zeruko bideak.

Aintza eta gora Zu  
Jesus Jainko maitea  
eskerrik onenaz,  
zuri begira gagoz  
lur bedeinkatu ontan  
biotz guztiagaz.

## KUTXATILLA

*Kutxatilla bat daukat  
nere begien aurrez  
eguzki antzera,  
argiz ondurik dago  
bikaintasun onean  
errira begira.*

*Bikaiña da izatez  
euzko kutun artean  
beraren ederrez,  
begira ta begira  
geiago esaten dau  
kutxatil indarrez.*

*Urkulluk ba daki  
euzko bitxien barri  
lur bikain onetan,  
Maxa eder dalarik  
Euskalerra guztia  
dagersku loretan.*

*Euzko seme jatorrak  
ba-dabiltzaz jatorrak  
erri omenetan,  
txiki txikitatikan  
Urkulluren taldea  
ertizko bidetan.*

*Erti maitasuna  
biotzez alkartu da  
euzko baratzean,  
jakituri ta itza  
erririk erri doaz  
bizitz ederrean.*

*Mendi orlei bikaiñak  
ta tarteka erriak  
oso bikain dagoz,  
zugadi mardulenak  
apaintzen dabe lurra  
eguzki gozaroz.*



## ELEIZ EDERRAK IKUSTEN

## TENTALDIAK

*Espiritu Santuaz  
basamortura joan  
ta gose izan zan  
barau arrigarriak  
mindu eutsen bizia  
berrogei egunetan.*

*Galdera mingarriak  
zuzendu eutsoezan  
diabrukeritan,  
Jainko Seme ba-zara  
arri onek aldatu  
ogi zurietan...*

*Jesusen erantzuna,  
egitan, bikaiña zan  
gizonen artean,  
Jaungoikoaren itza  
janari bikaiña da  
giza bizitzean.*

*Orduan diabrua  
uri santura doa  
Jesusi esanez,  
Jainko seme ba-zara  
bota ortik burua  
ausarditasunez.*

*Barrero deabruak  
mendi goira daroa  
lur oro ikustera,  
egiz gurtzen ba-nozu  
zuretzat izan bedi  
edertasun dana.*

*Alde emendik Satan...  
Jainkoa gurtuko dok  
dago idatzita,  
diabrua makaldu  
ta aingeruak jatorkoz  
egiz gurtutera.*

## ZORIONTASUNAK

Zorionekoak egiz  
goro-oneko txiroak  
zeruaren aurrez,  
zeru edertasuna  
eurena da egitan  
zoriontasunez

Zoriontsu otzanak  
lur ontako bizitzan  
apalak direnak,  
bizitz onen barruan  
egiz izango dira  
lurraren jaubeak.

Giza zoriontsuak  
negar eiten dabenak  
bizitza onetan,  
zeruko erreñuan  
pozez biziko dira  
beti iraunetan.

Zorionekoak egiz  
zuzentasun zaleak  
bizitza onetan,  
Jaunak asetuko dauz  
bizitz ederrenagaz  
goiko zeruetan.

Zorionekoak bai  
errukidun gizonak  
bizitza guztian,  
poza lortuko dabe  
biotza aseturik  
Jaunaren etxian.

Zorionekoak dira  
bake zale direnak  
lagunen artean,  
neure seme zarie  
esango dautse Jaunak  
zorion betean.

## EGIZKO OTOITZA

Otoi egikeran  
ez ibili uts ta uts  
jentillen antzera,  
itz eta itz egiñez  
oker uste dabe-ta  
entzungo dautsela.

Goratu egizue  
zeruetan dagoan  
Aita guztiz ona,  
zerutik betorkigu  
maitasun guztiagaz  
zure erreñua.

Ez izan kaska baltzak  
buru gogorkeriaz  
Jaunaren aurrean,  
Jainkoak, aurrez, daki  
zuen bear izana  
bizitza onean.

Zeruan oi dan legez  
emen be izan bedi  
zure borondatia,  
zuzentasuna egiz  
gauz bikaiña da lurrez  
ondurik bizia.

Zentzunez egizue  
Aitak onartu daian  
otoia ortzian,  
otoiera bikaiña  
aurrez aur daukazu  
itz ederrenian.

Parkatu gure zorrak  
guk geure zordunei lez  
erbeste onetan,  
ez egiguzu itzi  
zitzaldietan jausten  
lur arazoetan.



## JAUNAREN ARDURAPEAN

Agindu bikaiña da  
Jesusek damoikuna  
janari aurrian,  
gu, egiz, ondu narik  
egirik ederrena  
damosku bizian.

Ez arduraz ibili  
zer jan ete zeinkien  
bizitza onetan,  
ez larritu jantziaz  
gorputza estaltzeko  
negu aldietan.

Bizitzea ez al da  
jana baiño geiago  
gizon arduetan,  
gorputza ez al da  
jantziak baiño geio  
bizitz aldietan.

Mendiko egaztiak  
ez dabe lurrik lantzen  
bizitza guztian,  
alan be bizi dira  
Jainkoak lagundurik  
edertasunian.

Begira zabaldira  
zelaietako lorak  
zein bikainak diran,  
lanik ez dabe egiten  
ta edertasun giroz  
daukazuz zelaian.

Salomon ospetsua  
beren eder guztian  
ez zan, olan, jantzi,  
egiz poztu zaiteze  
eta zeru ederra  
gogoz orabazi.

## ESKATU

Giza eskabidea  
jakiturizkoa da  
bear izanetan,  
giza duintasuna  
laguntzaz bikaintzen da  
lur arazoetan.

Billa joan goizian  
baratza bikaiñera  
eguzki urretan,  
madari ederrenak  
aurkituko dozuz  
oparo benetan,

Eskatu egizue  
ta emongo jatzue  
laguntza lurrean,  
biotza gertu dago  
gizonei laguntzeko  
ondasun bidean.

Atea jo egizu  
dardaratsu gogo onez  
goizian goizetik,  
janari bikaiñenak  
zure izango dira  
biotz biotzetik.

Billa ibili zaitetz  
ta aurkituko dozu  
lurrean lorea,  
gero etorriko da  
sasoiz eta ugari  
janari ederra.

Ibili dabillena  
aurkitu egiten dau  
lorea baratzen,  
eta ondoren dator  
arnari eztitsua  
urrezko otzaran.



## ELEIZ EDERRA IKUSTEN

Ederrari begira dagoz  
amets gozoetan,  
ta txoriak goi aldean  
bizitz ederretan.

## EDERMIN

*Bikaintasun guztia  
edermiñak daroa  
maitasun garretan,  
eder ta maitasuna  
biak batera dabiltz  
gogo bikaiñetan.*

*Ederra, ondo, doa  
adimen argietan  
anaitasunian,  
giz adimen altsuak  
jakituria nai dau  
edertasunian.*

*Ederra ta argia  
biak batera dabiltz  
baratza nausian,  
ainbeste edertasun  
gora goraka dagoz  
jakintza bidian.*

*Izadia eder da  
ta baratza erregin  
apaintasunian,  
biak dira lurraren  
seme kutun kutunak  
alkartasunian.*

*Baserri goikaldean  
agertu da loradi  
zeru goira adi,  
ederrez bikain dago  
usaingozozko lorez  
maitasun irudi.*

*Ertia zabaldu da  
etxe koiko landara  
lore bikaiñetan,  
izarrak adi dagoz  
zeru goitik zelaira  
txit zoramenetan.*

## IZKUNTZA EDERRA

Munduko lurraldean  
izkuntz ederrak dagoz  
jakintzaz betiak,  
jakituri bikaiña  
gora gora daroe  
izkuntza nausiak.

Ingelez ta Prantzez  
Aleman doixtarragaz  
jaun aundiak dira,  
mundu zear dabiltzaz  
jakituria geitzen  
ertzetik ertzera.

Munduaren argia  
izkuntza da egitan  
egiaz ondurik,  
itza ta eguzkia  
maitegarriak dira  
eskarrez beterik

Mundu ontan ba da  
jakituriz ondurik  
lur zoragarria,  
gizontasunez dago  
lur oro bikaindurik  
eskarrez jantzia.

Giza jakituria  
izkuntz bikaintasunez  
biak bat ein dira,  
euzko gizatasuna  
zelairik zelai dabil  
zorionekoa.

Gizontasun ortatik  
buruaren argitik  
ta biotz onetik,  
euskera urrezkoa  
agertu da errian  
jakintzaz ondurik.

## SEMEA BIALDU

Jainko Guztiz Altsua  
lurrera adi dago  
zeru goi urdiñetik,  
zoritxarpean dakus  
giza seme larriak  
gaitzez ondaturik.

Norberekeri latza  
gogotsu dabil lurrez  
gogorkerietan,  
ondamen galgarria  
sartu da biotzetan  
lar, zoritxarretan.

Biziaren Jaubea  
bat bakarrik lurrez  
mundu zabalean,  
Jainko Alguztidunak  
sortu eban bizia  
Jabetza onean

Munduko txarkeria  
samiñez ikusirik  
ondamendipean,  
Semea bialtzen dau  
lurtarrak argitzera  
egizko bidean,

Egiagaz lenengo  
argitu eban lurra  
jakituri bidez,  
irakatsi bikaiña  
opalduz gizoneri  
zerutar eskarrez.

Gero ondoren dator  
jazoera samiña  
ikusgarrietan,  
billotsik ta ezpataz  
bizia eskeintzen dau  
maitasun garretan.

## EUNTARIAREN MORROIA

*Gauza arrigarriak  
nonnai agertzen dira  
Jesusen aurrean,  
bizi Jaube izanik,  
nonnaitan, doakioz  
gizonak eskean.*

*Euntaria, oingoan,  
eskean doakio  
ardura biziaz,  
Jauna, nire morroia  
oiñaze miñez dago  
zoritxar biziaz.*

*Josuk, gogoz, dirautso,  
guazen osatutera  
samin orretatik,  
neke aunditan dago  
giza seme gaisoa  
samiñez urturik.*

## ELBARRIDUNA

*Itxas urdin ederra  
berez da zoragarria  
mundu zabalian,  
Jesus gure Maisua  
txalupa baten doa  
uraren aidean.*

*Biziaren Jaubea  
txalupa baten doa  
itxaso ertzero,  
itxas urdiña itzi  
ta bere errira doa  
Jesus Jaun maitea.*

*Jendea estu dabil  
euren arazoetan  
txit arduraturik,  
elbarridun semea  
pozez ekarri eutsen  
Jesus ikusirik.*

*Sinismena ikusi  
eta elbarriari  
maiteki dirautso,  
uste oneko izan  
obenak parkaturik  
bizi izateko.*

*An egozan batzuek  
entzunaz arriturik  
alkarren artean,  
biraoka diardu  
minkor esaten eben  
Jesusen aurrean.*

*Eskubide eder ori  
niregan dagoala  
jakin dagizuen,  
elbarriari dirautso,  
artu oia ta zoaz  
zeure etxera zuzen.*



## Solozabal'dar Paulin Abade olerkaria

Eskuetan daukazu, irakurle, Paulin'en amairugarren olerki-liburua.

Paulin Etxebarri'n jaio zan 1912n. urteko orrillaren 4n. egunean. Jose Maria Arizmendiarrjeta'ren etxetik km. bira dagon etxean. Etxebarri bere errian asi ebazan ikasketak eta Larruskain'en jarraitu. Amabi urtekoa zala Durango'ko josulagunen ikastetxera joan zan, gero seminaria joateko ustean. Urte bi egin ebazan emen eta gero beste urte bi Artea edo Gaztelu-Elexabeiti'n. Beste zortzi urte Gasteiz'ko seminarioan.

Ikasketak amaitu-aurrean gudara joan bear izan eban eta gudarien kapellau-antzera egon zan ainbat lekutan, Gorbeia'n be bai. Gogoan dauko zelako maitasunaz errezaten eben gure gudariak agurtza deuna.

Gero Lizarraga'n egon zan kapellau-antzera erdeldunakaz eta Gasteiz'era joan zan Lauzurika gotzaiñagaz berba egitera eta abadetza eskatzera. Gogo-jardunak egin eta Bergara'n egin zan abade.

Araba'ko Basabe'n egin ebazan iru urte abade eta arrezkero 65 urte daroaz Mungia'n, artzain-lanetan eta euskerearen alde lan egiten. Gaur be orretan diardu. 20 urtean Laukariz'ko Abadea izan zan, Mungia'tik.

Zorionak eta eskerrik asko, Paulin, Zure liburu onegaitik!